

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2020ko maiatza / 305. zenbakia

www.oñati.eus  




ETORKIZUN BERRIARI BEGIRA

Kezka eta ziurgabetasuna nagusi den honetan, Udala hainbat neurri ekonomiko hartzen ari da COVID-19ak eragindako krisiari aurre egiten laguntzeko

COVID-19aren aurrean Oñatiko Udalak onartutako

NEURRI

EKONOMIKOAK



COVID-19aren ondorioz, hainbat herritar pairatzen ari diren kalteak arintzera bideraturiko neurri ekonomikoak (dirulaguntzak, neurri fiskalak...) zehazteko mahaia eratu du Oñatiko udalak. **COVID-19 Neurri Ekonomikoen Mahaia** udaletxean ordezkaturik dauden bi alderdi politikoetako kideek eta udaleko hainbat batzordetako (Ogasuna, Sozioekonomia, Gizarte Zerbitzuak) teknikariek osatzen dute. Hona hemen, orain arte hartutako neurriak.

► 500.000 EUROKO DIRU POLTSA DENDA OSTATU ETA ZERBITZUEI LAGUNTZEKO

COVID-19ak herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko establezimenduetan eragindako kalteak leundu guran, 500.000 euroko poltza sortu du Udalak. Konfinamendu neurrien ondorioz, euren jarduera etenda duten negozioei (10 langiletik beherakoak eta pertsona zuzendutako zerbitzu edo produktuak eskaintzen dituztenak) laguntzea da helburua. Berez, Eusko Jaurlaritzaren eskumena da sektore honi zuzendutako laguntza neurriak abian jartzea, baina udalak inizatiba hartzea erabaki du, Gasteizko gobernutik laguntzarik ez baletor, edo, etorritakoak asko ez balira, laguntzak ziurtatzeko. Honakoak dira Udalak martxan jarriko lituzkeen laguntzak (hiru hileko itxialdiko aurreikuspenarekin):

1. Argiaren faktura ordaintzen laguntzeko: **68.000 €**.
2. Uraren faktura ordaintzen laguntzeko: **29.000 €**.
3. Zabor tasak ordaintzeko: **25.000 €**.
4. Herriko komertzioen aldeko sentsibilizazio kanpaina: **8.000 €**.
5. Kostu finkoei (alokairua, gestoria, argindarra, telefonoa...) aurre egiten laguntzeko: **220.000 €**.
6. Erosketa bonuen sistema indartzea: **150.000 €**-ra igoko da laguntza poltza (zati bat *Kuttuna.org* ekimenera bideratuko da, eta beste zati bat udalak berak aterako dituen erosketa bonoetara). Horrek **750.000** euroko fakturazioa bermatuko du Oñatiko denda, ostatu eta zerbitzuetan.

► GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK INDARTU EGIN DITU UDALAK

BONU SOZIALAK.

Bonu sozialak sortu ditu udalak baliabide urriak dituzten pertsona edo familiek herriko dendetan elikagaiak eta garbitasunerako produktuak eros ditzaten. Udaleko gizarte-langileek osatuko dute laguntza hau jaso ahal izango duten herritarren zerrenda, familia unitate bakoitzaren egoera aztertuta, Caritasekin elkarlanean. Laguntza hauetarako 50.000 euro bideratuko ditu udalak.

GIZARTE LARRIALDIAK

Azken asteotan goraka doaz Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) eskaerak. Gizarte bazterkeria egoera prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoek aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsona zuzendutako laguntzak dira. Bizikidetzaren unitateko kide guztien diru sarrerak aztertzen dira horretarako. Etxebizitzaren alokairuaren zein maileguen zati bat ordaintzera (gehienez %70 edo 250 euro hileko) etxebizitzako energia edo mantentze gastuetara eta bestelakoetara (gastu pertsonalak, arropa...) bideratzen dira laguntza hauek.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak **85.874** euro jartzen ditu, baina horrekin aski ez denez, Oñatiko udalak beste **119.556** euro ipini ditu GLL laguntzetarako. Guztira, **205.430** euroko diru poltza.

ETXEBIZITZA SOZIALAK.

Etxebizitza sozialen alokairuaren kobrantza eten egin du udalak.

► NEURRI FISKALAK (UDAL ZERGAK, TASAK, ABONUAK...)

- **Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga** irailaren 15era atzeratu da.
- **Ondasun Higiezinaren gaineko zerga** abuztuaren 1etik irailaren 15era atzeratu da.
- **Ibi Iraunkorra, garaje eta kanposantuko tasak** irailaren 7tik urriaren 15era atzeratu dira.
- **Kiroldegiko** urteko kuotaren zati proportzionala itzuli egingo zaie abonatuiei.
- **Bide okupazioagatik** (hesiak, aldamiok, eraikuntza materiala...) eta **baratze parkearen** erabilteragatik tasa ez da kobratuko.
- Alarma egoerak behartuta itxita egondako denbora aldiari dagokion mahai eta aulkien **bide-okupazioaren tasa** ez zaie kobratuko taberna, kafetegi eta jatetxeei. Horrez gain, urriaren 15erarte atzeratuko da ordainketa.

► BESTELAKO EKINBIDEAK

- Udalak alokairuan dituen tabernei (**Eltzia** eta **Zubikoa** kiroldegia) ez zaie alokairua kobratuko, derrigorrean itxita egon behar duten bitartean.
- **Olaburu** zein **Olalan** guneeetako alokairuak ez ditu kobratuko itxita dauden bitartean.
- Etxeko lanak telematikoki egin ezin dituzten ikasleei **SIM txartelak** eskuratzea, internet konexioa ahalbidetzeko (**2.000€**).
- Maker komunitateko kideek NBE (Norbera Babesteko Ekipoak) prestatu ahal izateko **materiala erostea**.

LAGUNTZA GUZTIAK KONTSULTATZEKO

COVID-19ak eragindako ondorio kaltegarriak arintzeko, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak, Espainiako gobernua eta bestelako erakunde publikoek abian jarri dituzten laguntza eta prestazio ekonomiko guztiak kontsultatzeko bilatzailea prestatu du Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak, SIIS Dokumentazio eta Azterketa Zentroarekin lanidetzan. Helbide hauetan kontsulta daitezke: www.covid19laguntzak.sis.net/eu edo www.euskadi.eus

Oñatiko udaleko Sozioekonomia departamentuak ere laguntzen inguruko informazioa eta aholkularitza zerbitzua ematen du. Harremanetarako: **943 003 198 / enplegu@onati.eus**.

20.000 euro gehiago, kuttuna.org ekimenerako

Aurretik udalak ipini zituen 20.000 euroko diru saila agortu da eta 100.000 euroko balioa duten erosketak bonuak erosi dituzte herritarrek

Udalak **Kuttuna.org** ekimenera bideratutako 20.000 euroko diru saila agortu egin da bi astetan, eta beste 20.000 euro ipintzea erabaki du. Orain arte, 100.000 euroko balioa duten bonuak erosi dituzte herritarrek, eta beste 20.000 euro gehituta, 200.000 euroko erosketak sustatu nahi ditu udalak.

Gogoratu, **Magnet** kooperatibak abian jarritako ekimena dela **Kuttuna**, irabazi asmorik gabe, konfinamenduaren ondorioz itxita dauden herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko establezimenduei laguntzeko helburuarekin. **Kuttuna.org** bidez erosketak bonuak erosiz, dirua aurreratzen zaie saltokiei, eta behin irekita daudenean erabili ahal izango dira erositako bonuak.

Udalak ere bat egin zuen ekimenarekin, herritarrek erosten dituzten bonuen zenbatekoaren %20 diruz lagunduta. Adibidez, erosleak 40 eurotan eskuratzen du 50 euroko balioa duen erosketak bonua, edo 160 eurotan 200eko. Gogoratu, **kuttuna.org** plataformaren bidez 25 eta 200 euro arteko bonuak eskura daitezkeela.

Laguntza ahalik eta establezimendu gehienetara hel dadin, pertsonako 400 euroko muga jarri da bonuak erosteko,




eta muga hori pasatu ezker, bonuei ez zaie dirulaguntza aplikatzen. Erosketak bakoitzean gehienez ere 200 euroko bonua erabil daitezke.

Une honetan Oñatiko 63 denda, ostatu eta zerbitzu daude alta emanda **Kuttuna.org** plataforman, eta 400dik gora herritarrek egin dute erosketaren bat. Udalak dei egiten die emergentzia egoeraren ondorioz beraien

jarduera eten beharra izan duten establezimenduei **Kuttuna.org** egitasmoarekin bat egitera. Zalantzak argitu edo alta prozesuan laguntza behar izanez gero, 943 003 198 zenbakira deitu edo enplegu@onati.eus helbidera mezua bidali. ■

» **NESTOR ARANA** / LANBIDEko zerbitzu orokorretako zuzendaria

"Autonomoentzako 30 milioi euroko laguntzak maiatzean zehar jarriko ditugu martxan, bi zatitan"



Nola aldatu diren gauzak bi hilabeteren buruan. Aspaldiko urteetako langabezia daturik onenekin itxi genuen otsaila, baina azken bi hilabeteetan 24.000 langabe gehiago daude LANBIDEko zerrendetan, eta 180.000 inguru langile aldi baterako enplegu-erregulazio egoeran. Nestor Arana (Oñati, 1958) LANBIDEko zerbitzu orokorretako zuzendariarekin hitz egin dugu egoera berriaz, eta osasun krisiak eragindako ondorioei aurre egiteko hartzen ari diren neurriez.

Aurreikuspen onak zenituzten urte hasieran, baina COVID-19ak hankaz gora bota ditu denak.

Hala da, bai. Urte hasieran egiten genuen aurreikuspenaren arabera, maiatzean edo ekainean errekorra lortuko genuen Gizarte Segurantzaren afiliatutako langile kopuruari dagokionean, baina COVID-19ak hankaz gora bota ditu aurreikuspenak.

Urtea 140.000 langabaturekin hasi genuen, eta, otsaila, azken urteetako daturik onenarekin itxi genuen (117.239 langabetu). Martxoko lehen hamar egunetan ere 2.000 lanpostu gehiago sortu ziren, baina, bat-batean, dena aldatu da. Martxoko bigarren hamabostaldian ia 13.000 langabe gehiago kontabilizatu ziren, eta apirilean beste 10.729 gehiago. Une honetan 139.000 langabe daude Euskal Autonomia Erkidegoan (%12,9).

Nestor Arana
oñatiarra
LANBIDEko
zerbitzu
orokorretako
zuzendaria da

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

Horrez gain, ez dugu ahaztu behar 180.000 inguru langile daudela aldi baterako enplegu-erregulazio (ABEE/ERTE) egoeran.

Hurrengo hilabeteetan goraka jarraituko al du langabezia?

Zaila da orain esatea. ABEE-ERTE espedienteekin zer gertatzen den ikusi behar da, hauen indarraldia amaitzean. Lanera itzultzen ote diren, eta zein neurritan. Zenbait enpresatan txandaka hasi dira lanean, segurtasun distantziak mantendu ahal izateko. Badira, bestalde, produkzioa gutxitu zaielako ERTEa eskatu duten enpresak... Ikusteko dago. Nik uste dut ekainerako ikusiko dugula garbiago zein den joera. Dena den, ni baikorra naiz, eta urte bukaerarako edo hurrengo urte hasierarako ekonomiaren susperraldia ikusiko dugula uste dut.

LANBIDEK etenda du aurrez aurreko arreta, baina telefono bidez eta telematikoki zerbi-

↓

Oñatiko apirileko langabezia datuak

SEPEk (Servicio Público de Empleo Estatal) emandako azken datuen arabera, apirilean 0,6 puntu igo da langabezia Oñatin, %7,45ean kokatzeraino (Debagoienean %9,38). Une honetan 405 langabetu daude Oñatin; horietatik, 223 emakumezkoak eta 182 gizonezkoak. Urte hasierako datuekin alderatuz, 1,45 puntu egin du gora langabeziak Oñatin (79 langabetu gehiago), eta orain dela urtebeteko datuekin alderatuz, 1,6 puntu (jazko apirilean %5,83an zegoen langabezia tasa). Bestalde, Lanbidek emandako datuen arabera, Oñatin 465 langile daude ERTE edo aldi baterako enplegu erregulazio egoeran.

tzua ematen jarraitzen duzue. Pentsatzen dut sutan egongo direla telefonoak, ezta?

Bai, indartu egin dugu lantaldea, ohi baino hamabost bat langile gehiago ipini ditugu telefonoak atenditzeko, eta ondo moldatzen ari gara.

Gainera, Koronabirusak eragindako larrialdi egoera hau aprobetxatu dugu, halaberharrez, aspaldi ipini nahi genituen hainbat zerbitzu telematikoki martxan jartzeko. Adibidez, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE/RGI) eskatzeko edo enplegu-eskaintzaile gisa izena emateko proze-

Ekainean
Gizarte
Segurantzaren
afiliatutako
langile
kopuruaren
errekorra
lortuko genuela
aurreikusten
genuen, eta
begira nola
gauden

durak web bitartez tramitatzeko aukera ipini dugu. Dagoeneko ez da beharrezkoa bulegora bertaratzea, orain arte bezala. Beraz, alde positiboa ere atera diogu bizi dugun egoera berezi honi.

Web bidez tramiteak egiteko zailtasunak edo behar besteko formaziorik ez duten herritarrek KZgunean eskatu ahal izango dute laguntza, Lanbidek KZguneekin sinatu duten lankidetzaz hitzarmenari esker.

Noiz irekiko dituzue berriz ere bulegoak?

Maiatzean zehar, baina oraindik

MGEP

MONDRAGON GOI ESCOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmh
onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

Ate Irekiak Online

Maiatzak 25 - 26 -27

Zergatik erabaki zenuen Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa GMHZ egitea?

Huhezin, Lehen Hezkuntza egin ondoren, industriarekin zer ikusia duen ikasketak praktikoki egitea animatu nintzen. Oso praktikoa delako eta makinekin zer ikusi handia duelako aukeratu nuen titulu hau.

Eta, zergaitik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan (MGEP)?

Batez ere, egunerokotasunean izan nezakeen funtzionaltasunagatik. Eskolara bizikletan joateko aukera izatea garrantzitsua zen niretzako. Gainera, MGEP-k eskaintzen zituen baliabideak ikusita niretzako egokia zela iruditu zitzaidan (baliabide akademikoak, teknikoak, pertsonalak, etab.)

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, talde-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer nolako erronkak egin dituzue?

Gehienbat talde lanak izan dira erronka hauek. Ikusitako teoria eta praktika erabili behar izan ditugu. Taldekide ezberdinen gaitasunak kontuan hartuz eta hauek ahalik eta modu egokienean kudeatuz irtenbideak bilatzea izan ohi da helburu nagusia.

Lehenengo mailan, pieza baten serieko produkzioa antolatzea behar izan genuen. Horretarako taldea antolatzea eta produkzioaren atal bakoitza modu eraginkorrean planteatzea zen jomuga. Azken finean, produkzio eraginkorra egin behar genuen bai kalitate aldetik eta baita denbora aldetik.

Industriarekin harremana hareagotu duzue DUAL formakuntzaren bitartez, aipatu dezakezu non egiten duzue lana, zein alorretan eta zein lan motak?

DUAL formatuan ikasketan egiteko aukera izan nuen Oñatiko Ulma Packaging enpresan, mekanizatutako alorrean. Bertan, gehienbat elikagaiak eta medikuntzarako tresnak batzeko makinak egiten dira eta mekanizazio alorrean, makina horientzako piezak mekanizatzeko ditugu.

MGEPen ikusitako gauza batzuk aplikatu ditut eta honetaz gain gauza berri asko ikusi eta ikasten ari naiz. Ulma Packagingek izugarriko aukera eman dit nire formazioa osatzeko eta lankide talde oso ona aurkitu dut bertan.








Kepa Gruceta. Arrasate

ez dugu data finkatu. Oraingoz, manparak erosi ditugu, aurrez aurreko arreta eskaini ahal izateko egoerak exijitzen duen segurtasun neurriekin.

LANBIDEk zuzenean kudeatzen dituen laguntza-lerroen artean, langile autonomoei zuzendutakoa dago. Apirilaren 15ean 3 milioi euroko diru-saila bideratu zenuten, baina motz geratu zen, bistan denez; 10.000 eskari jaso zentuzten lau ordutan, sistema informatikoa kolapsatuz. Ondoren, laguntza lerro hori 30 milioira handituko duela iragarri du Jaurilaritzak. Noiz eta nola emango duzue laguntza hori?

Bi zatitan emango da. Alde batek, 15 milioi bideratuko dira apirilaren 15eko deialdiko eskaerei erantzuteko, eta beste 15 milioiekin deialdi berria egingo da, beste baldintza batzuekin, onuradunen abanikoa zabaltzeko asmoz, baina oraindik zehaztu gabe dago. Uste dut maiatzean zehar jarriko dela martxan.

Kultura arloko profesionali zuzendutako 2,5 milioi euroko laguntza lerroa ere iragarri duzue, Jaurilaritzako Kultura sailarekin batera. Noiz jarriko da martxan?

Apirilaren 29an onartu zuen gobernu kontseiluak eta datorren astean iragarriko da aldizkari ofizialean. Hortik aurrera, hamar eguneko epea irekiko da eskaerak aurkezteko. Modu horretan, autonomoen deialdian gertatutakoa bezalako kolapsoak ekidin nahi ditugu.

Ez al dira motz geratuko 2,5 milioi?

Ez dakigu. Ez dago errolda bat, eta ez dakigu zenbat eskaera jasoko dugun. Urteko diru sarreraren %60, gutxienez, kultura arloko jardunetik jasotzea ipini dugu baldintza bezala, besteak beste. Iazko diru-sarreraren batz bestekoaren %70 jaso ahal izango dute, 1.200 euroko mugarekin.



Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE/RGI) eskatzeko prozedura erraztu egin duzuela esan duzu. Asko hazi al da eskatzaile kopurua larrialdi egoeraren ondorioz?

Ez asko. Apirilean 140 pertsona gehitu dira, eta martxoan 151. Ikusi egin behar zer gertatzen

KULTURA ARLOKO LAGUNTZAK

Maiatzaren 11ko astean zabalduko dugu kultura arloko langileek laguntza eskaerak jasotzeko hamar eguneko epea

EREDU ALDAKETA

LANBIDEren lan-eredua aldatu dugu; lehen zerbitzuak ematen zituen erakundea ginen, eta orain pertsonak ipini ditugu erdigunean, eta arreta pertsonalizatu osoa eskaintzen ari gara

den hurrengo hilabeteetan, ERTEen indarraldia amaitutakoan. Oraingoz, lehentasuna ematen ari gara DSBE-RGIaren eskaera berriei, eta bertan behera utzi ditugu baldintzak ez betetzeagatik hasitako etete prozesuak. Gainera, ahalegin berezia egiten ari gara prestazioaren ordaintetan atzerapenik egon ez dadin, eta lortzen ari gara. Eguneratuta ditugu tramite guztiak. Une honetan 52.391 pertsonak jasotzen dute DSBE/RGIa Euskadin, eta 400 milioiko aurrekontua du laguntza lerro honek.

Sindikatu batzuek eskatu diote LANBIDEri aldi baterako

enplegu-erregulazio egoeran dauden langileen diru-sarrerak osatzea. Halako neurririk hartu al duzue?

Enplegu Zentro Berezietan diharduten langileei ordainduko zaie soldataren osagarria. Zentro hauetako langileek lanbide arteko gutxieneko soldata jaso ohi dute, eta horietako asko ABEE-ERTE egoeran daudenez (soldataren %70arekin), gutxieneko soldatarainoko aldea ordainduko die LANBIDEk.

Gainerakoan, ABEE-ERTE egoeran dauden langileen prestazio ekonomikoak SEPEk (*Servicio Público de Empleo Estatal*) kudeatzen ditu.

Pandemia gainditu osteko egunean pentsatzen hasita zaudetela esan duzue, ahalik eta pertsona gehien eta ahalik eta azkarren aktibatzeke helburuarekin.

Bai, tramiteak azkartzen ari gara, egoera normaldu ahala, gure urteko plangintzan jasotako programak abian jartzeko, hala nola, HEZIBI (gazteei zuzendutako programa, formazioa eta lana uztartuz), tokian tokiko udalekin batera enplegua sustatzeko programak, edota langabetu nahiz jardunean diren langileen formazioa hobetzera zuzendutako programak, besteak beste.

10 urte bete berri ditu LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuak. Zer nolako osasun egoera du?

Euskal Herria krisi ekonomiko gogorra jasaten ari zen unean jarri behar izan genuen martxan LANBIDE, eta uste dut gauza asko egin ditugula hamar urte hauetan, baina, zerbait azpimarratzekotan, eredu aldaketa aipatuko nuke. Lehen, zerbitzuak ematen zituen erakunde bat ginen, eta orain, aldiz, pertsona begira jarri gara; pertsonak ipini ditugu erdigunean. Gure teknikari bakoitzak bere kartera dauka, eta bertan dauden pertsona arreta osoa, integrala emateaz arduratzen da, herri-tarrak leihatila batetik bestera bidaltzen ibili barik. ■

"Orain da unea ELKARTASUNA erakusteko"

COVID-19aren ondorioz egoera ekonomiko larrian dauden familiei laguntzeko diru-bilketa jarri du martxan **Oñatiko Caritasek**

Oñatiko Caritas elkarteak elkartasunerako premiazko deia luzatu die herritarrei. COVID-19ak eragin duen krisiaren ondorioz, gero eta gehiago dira egoera ekonomiko larrian dauden familiak. Gero eta gehiago, gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonak. Gainera, itxura guztien arabera luze joko du krisi egoera honek eta, beraz, denon laguntza beharko da premia gorrian dauden herritarrek babesteko. Hori dela eta, **'Erresistentzia Kutxa'** bat sortu nahi du Caritasek, eta bi kontu zenbaki ireki ditu Kutxan eta Euskadiko Kutxan, herritarren nahiz enpresen diru ekarpenak jasotzeko.

Errolda baldintzak (3 urteko antzintasuna) ez betetzeagatik, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE / RGI) jasotzen ez duten familia eta herritarrei laguntzen die Caritasek. Eskatzaileen egoera aztertu ondoren, oinarritzko beharrak asetzeko laguntza ematen die:

DIRU EKARPENAK EGITEKO

EUSKADIKO KUTXA
ES26 30 35 0005 3500 5110 4667

KUTXA
ES45 2095 5057 4210 6004 1984



janari-bonuak, arropak, botikak, argindarra edo gasa ordaintzeko laguntzak, MUGI txartela...

luz 148 familia unitateri lagundu zien Oñatiko Caritasek (230 izan ziren onura-

dunak, guztira) eta 56.000 euro gastatu zituen laguntzetan. Aurten, baina, diru gehiago beharko du Caritasek, gora egin dutelako laguntza eskaerek, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz. "Ia egunero ari gara deiren bat jasotzen, ekonomikoki iristen ez diren pertsonena. Lehengoz gain, eskaera berriak ditugu, eta behar berriak sortuko dira" adierazi digute Caritasetik. "Aurten, gainera, ezingo dugu egin Korpus egunean parrokiaren egiten den diru-bilketa, eta hori izaten da gure urteko diru iturri nagusietako bat".

Horregatik, elkartasunerako momentua dela uste du Caritasek, eta dei egiten die herritarrei diru-ekarpenak egitera, "erresistentzia kutxa bat sortu eta, denon artean, krisiaren inpaktua arindu eta gure bizilagunen etorkizuna babesteko gai izan gaituzten".

Batutako dirua, familien oinarritzko beharrak (janaria, botikak...) asetzera bideratuko da eta, baita ere, Caritasek sustatzen dituen gizarteratze eta laneratze proiektuei jarraipena emateko. "Proiektu hauek funtsezkoak dira lan munduan sartzeko zailtasun handiak dituzten pertsonen aukerak emateko".

Elkarzabal da horietako proiektu bat, eta gaur egun bi aktibitate ditu martxan: **Baratzak** (4 pertsonak dihardute bertan lan okupazionalen) eta **Zaintza** zerbitzua eskaintzeko lan poltsa. Horrez gain, Caritasen eskualde mailako 'Bidean' tailer okupazionalen ere parte hartzen du, eta Oñatiko 'Bidebarri' gizarteratze eta laneratze zentroaren sustatzaile eta akziodunetako bat ere bada. ■



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com



OÑATIKO UDALEKO GIZARTE ZERE

herritarren bizi-kalitatea hobetzea helburu

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten
administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



COVID-19aren ondorioei aurrre egiteko laguntzak

Udaleko Gizarte Zerbitzuen departamentuak hainbat laguntza-neurri onartu ditu Koronabirusaren ondorioz egoera ekonomiko larrian dauden herritarrei laguntzeko. Informazio gehiago 13. orrian.

ONGIZATE GIZARTEAri eusten dioten lau zutabeetako bat dira Gizarte Zerbitzuak, Hezkuntza, Osasuna eta Pentsioen sistemarekin batera.

Gizarte-kohesioa sustatzea eta herritarren bizikaltatea hobetzea dira Gizarte Zerbitzuen helburu nagusiak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek hainbat zerbitzu eta prestazio eskaintzen dituzte, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatuz.

SISTEMARAKO SARBIDEA

Euskadin indarrean dagoen 12/2008 Legeak eta 185/2015 Dekretuak arautzen dute zein zerbitzu eta prestazio eman behar duen administrazio bakoitzak.

Prozedurari dagokionez, legeak dio udal mailako Gizarte Zerbitzuak direla Euskal Sistemarako atea edo sarbidea; hau da, gizarte zerbitzu edo prestazio ekonomikoren bat jaso nahi duen herritarrek bere bizilekuko Gizarte Zerbitzuen bulegora jo behar du aurrena. Bertan, udaleko gizarte langileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eskaintzen dituen laguntza eta zerbitzuen inguruko informazioa eta aholkua emango digute, eta kasua baloratu eta diagnostikatu ostean, dagokion administrazioa bideratuko gaituzte eta behar diren gestioak egiten lagunduko digute, errespetuz eta halakoetan beharrezkoa den pribatutasuna eta konfidentzialtasuna zainduz betiere.

Zerbitzuak gestionatu eta tramitatzeaz gain, udaleko gizarte langileek arreta pertsonalizatua eskaintzen dute, kasu bakoitzaren jarraipena eginez, aholkularitza eskainiz eta herritarren bidelagun izanez. Gainera, lankidetzan jarduten dute une oro Osasun sarearekin (osasun zentroa, ospitaleak...) eta Hezkuntza arloko eragileekin (ikastetxeak...).

30 URTEKO IBILBIDEA

Oñatiko udalak orain dela 30 urte sortu zuen Gizarte Zerbitzuen departamentua, eta ordutik dihardu udal eskumenekoak diren zerbitzuak ematen, unean unean sortzen diren gizarte arazo eta behar berriei ahalik eta egokien erantzunez: arazo ekonomikoak, arazo pertsonal edo familiarak, gizarte bazterkeria, tratu txarrak, dependentzia eta desgaitasunak, mendekotasuna, hirugarren adina...

Ondorengo orrietan jaso dugu Oñatiko Udal Gizarte Zerbitzuen departamentuak eskaintzen dituen laguntza eta prestazioen inguruko informazioa. (→)

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte



MAPFRE
OÑATI

Desgaitasuna eta mendekotasuna

Pertsonen autonomia bultzatzea eta dependentzia edo mendekotasun egoerak dakartzan behar pertsonalei erantzuna ematea da Gizarte Zerbitzuen helburuetako bat. Horretarako, aurrena egoeraren balorazioa egiten da, pertsonen desgaitasun edo mendekotasun maila neurtzeko. Foru Aldundiko teknikariek egiten dute balorazioa, eta beharren arabera, honako zerbitzu edo laguntzak eskaintzen dira:

- APARKATZEKO TXARTELAK
- LAGUNTZA TEKNIKOAK (gurpildun aulkiak, ohe artikulatuak, bainugelarako aulki bereziak, audifonoak, etxean edo autoan egokitzapenak egiteko dirulaguntzak, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko egiten diren kontratazioetarako laguntzak, izan etxeko norbait, edo izan zaintzaile profesionala...).
- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA etxeko lanetarako edo arreta pertsonalerako.
- ELKARTE EZBERDINETARA BIDERATU (Atzegi, Aransgi, Acabe, Agufes, Gautena...).
- EGUNEKO ZENTROA edo bizitzeko beste mota bateko errekurtsoen (etxe tutelatuak, egoitzak...) tramitazioa, desgaitasunak dituzten pertsonentzat.
- LAN MUNDUAN TXERTATZEKO (Katea, Gureak, Bidebarri...) gestioak.

DATUAK: 2019ko datuen arabera, Oñatin 1.084 pertsonak (biztanleen %9) dute desgaitasun bat (fisikoa edo psikikoa), eta 527 pertsonak dute mendekotasuna (eguneroko bizitzarako beste norbaiten beharra dutenak).

Arazo ekonomikoak

Gero eta gehiago dira pobrezia egoeran bizi diren pertsonak, eguneroko bizitzari aurre egiteko arazo ekonomikoak dituzten herritarrak. Eta ez da bakarrik atzeritarren arazoa, denona baizik. Halako egoeren aurrean, alde batetik, udalak LANBIDEra bideratzen ditu baldintzak betetzen dituzten herritarrak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE / RGI) eskuratu ahal izateko.

GIZARTE LARRIALDIETARAKO UDALAREN DIRULAGUNTZAK

Udalak ere baditu bere diru baliabide propioak pobrezia egoerei aurre egiteko. Ildo horretan, etxebizitzaren alokairuari, mantenimenduari edo norberaren beharriari aurre egiten laguntzeko dirulaguntzak ematen ditu, dagokion balorazioa egin ostean. Iaz (2019) 154.308 euro eman zituen Oñatiko udalak; horietatik 65.500 euro Eusko Jaurlaritzak ipini zituen, eta udalak gainerakoa. Oñatiko 74 familiak jaso zuten laguntza.

BESTE ELKARTEEKIN ELKARLANA

Udaleko Gizarte Zerbitzuek elkarlanean dihardute herriko beste elkarte batzuekin (Caritas, Elikagaien Bankua...) egoera ekonomiko zailean dauden herritarrei laguntzeko. Iaz, esaterako, udalak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuen ACESMA, CEAR (Larrañako Harrera zentroa) eta Elkarzabal elkarteekin, Elikagaien Bankua kudeatzeko eta bertako lanak banatzeko. Gaur egun 40 bat familiak jasotzen dute Elikagai Bankuaren laguntza.

DATUAK

DESGAITASUNA

10.84 pertsona daude Oñatin (biztanleen %9) desgaitasunen batekin, fisikoa edo psikikoa; eta 527 herritarrek dute mendekotasuna

APARKATZEKO TXARTELAK

Une honetan 300 bat herritarrek dute desgaituentzat erreserbatutako aparkalekuak erabili ahal izateko txartela

POBREZIA

Iaz 155.359 euro bideratu zituen udalak arazo ekonomikoak dituzten herritarrei laguntzeko (alokairua, norberaren beharriari...), Oñatiko 74 familiak jaso zuten laguntza



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20



HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



Hirugarren adina

Pertsonen autonomia sustatu eta beraien etxean ahalik eta luzaroan bizi ahal izateko hainbat laguntza eta zerbitzu eskaintzen ditu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak:

- **ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA**

Etxeko lanetarako (etxeko garbiketak, otorduak...) edo arreta pertsonalerako (garbiketa pertsonala, botikak...) etxez etxeko laguntza. Une honetan 101 herritarrek jasotzen dute laguntza hau 87 etxetan. Iaz 778.749 euro bideratu ziren zerbitzu honetara (497.000 udalak, 210.000 foru aldundiak eta 71.000 erabiltzaileek).

- **TELELAGUNTZA ZERBITZUA**

Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen baliabidea da, etxean bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsonentzat. Gaur egun 300 bat pertsonak dute telelaguntza zerbitzua etxean.

- **ETXE TUTELATUAK**

Tutelapeko 4 etxebizitza ditu udalak Bidebarrieta kalean.

Mendekotasun maila arina duten 65 urtetik gorako herritarrentzako baliabidea da.

- **DEPENDENTZIARAKO LAGUNTZAK**

Desgaitasuna eta mendekotasuna atalean (ikus 10. orria) aipatutako laguntzak.

- **EGUNEKO ZENTROA ETA EGOITZA**

Eguneko Zentroan edo nagusien egoitzan sartu ahal izateko tramiteak egiten dira. Une honetan 13 lagunek itxaron zerrenda dago Eguneko Zentroan, eta 8 pertsonak egoitzan.

- **'SENDIAN PROGRAMA'**

Formazio ikastaroak eta laguntza psikologikoa, zaintza-lanak egiten dituzten senideentzako.

- **ALDI BATERAKO EGOITZA**

Urtean hilabete bat egoitza batean pasatzeko aukera eskaintzen du, mendeko pertsonaren zaintzaileak atsenen har dezan.

- **100 URTEKOEN OSPAKIZUNAK**

Ehun urte betetzen duten herritarrei lore sorta eta oroigarria ematen die udalak. Une honetan 6 herritar daude Oñatin 100 urtetik gorakoak, eta batek, Petra Agirrezabalek, 106 urte bete zituen apirilaren 27an.



Emakumea eta tratu txarrak

Tratu txarren biktima diren emakumeei laguntzeko hainbat zerbitzu eta baliabide eskaintzen ditu Gizarte Zerbitzuen departamentuak, Foru Aldundiarekin elkarlanean. Zerbitzuak kudeatzeaz gain, arreta pertsonalizatua eskaintzen zaie emakumeei, emozionalki lagunduz, bidelagun izanez eta kasu bakoitzaren jarraipena eginez, behar den diskrezioaz betiere.

- **LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA (Foru Aldundia)**

- **LAGUNTZA JUDIZIALA (Foru Aldundia)**

- **LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA (Foru Aldundia)**

- **DIRULAGUNTZA BEREZIAK (Udala)**

Eguneroko gastuei aurre egin ahal izateko laguntzak. Iaz (2019) 10.000 euroko diru atala bideratu zuen udalak laguntza hauetara

- **EPAIKETARA ETA DENUNTZIA JARTZERA LAGUNTZA PERTSONALA (Udala)**

- **URGENTZIAZKO ETXEBIZITZA EDO ATERPETXEA (Foru Aldundia)**

PREBENTZIO LANA

Udaleko departamentu ezberdinek (Berdintasuna, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa...) elkarlanean dihardute osasun zentroarekin, ikastetxeekin eta gazte zerbitzuekin batera, harreman berdinak sustatu eta indarkeria matxistaren prebentzioan eragiteko.

KOORDINAZIO PROTOKOLOA

Berriki erakunde arteko protokoloa sinatu dute Udalak, Osakidetza eta Ertzaintzak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeenganako arreta hobetzeko helburuarekin.

Iaz 14 emakume artatu zituzten udaleko Gizarte Zerbitzuetan. Aurten, dagoeneko, 3 emakumek jo dute bertara laguntza eske.

DATUAK

HIRUGARREN ADINA

65 urtetik gora dute oñatiarren %23k (horietatik %13 emakumeak eta %10 gizonak) eta 80 urte baino gehiago dute herritarren %7,72k

ITXARON ZERRENDAK

Une honetan 13 lagunek itxaron zerrenda dago Oñatiko Eguneko Zentroan, eta 8 pertsona dauden San Martin egoitzan sartzeko zain

GENERO INDARKERIA

Tratu txarren biktimei hainbat zerbitzu eta baliabide eskaintzen zaie, Aldundiarekin elkarlanean, arreta pertsonalizatua eskainiz, eta kasu bakoitzaren jarraipena eginez

Iaz 14 emakumek jo zuten Oñatiko gizarte zerbitzuetara laguntza eske.

Interbentzio familiarra

Babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoei eta familiei zuzendutako laguntza programa da. Udaleko gizarte langileek kasu bakoitzaren jarraipena egiten dute, ikastetxeekin, hezitzaileekin eta osasun zentroarekin elkarlanean, eta Eusko Jaurlaritzaren 'Balora' izeneko tresnaren bidez egiten da kasu bakoitzaren balorazioa.

Babesgabetasun maila '**BAXUA**' edo '**ERTAINA**' bada, udalaren laguntza jasotzen dute:

- TRATAMENDU PSIKOLOGIKOA
- FAMILIA HEZITZAILEA
- INTERBENTZIO GIZA-HEZITZAILEA GUNE IREKIAN (gazteak dauden lekuetara hurbiltzen dira hezitzaileak, harremana euren ohiko inguruan sortuz). Beste gizarte eragile eta hezitzaileekin (Gaztelekua, ludoteka...) elkarlanean aritzen dira, kasu bakoitzaren arabera integrazio programak prestatuz aisialdirako.

luz, 180.000 euro bideratu zituen udalak zerbitzu honetara, eta 22 familiatako 44 adin txikikok jaso zuten laguntza.

Adin txikikoen babesgabetasun maila '**LARRIA**' baldin bada, Foru Aldundiaren esku geratzen dira gazte horiei terapia eta bestelako laguntzak emateko ardura. Kasu larrietan Aldundiak berak hartzen du adin txikikoaren tutela. Iaz 6 kasu geratu ziren diputazioaren esku, eta horietatik 2tan, gaztetxoaren tutela hartu zuen bere gain foru aldundiak.

Adin txikikoen babesgabetasun maila '**LARRIA**' baldin bada, Foru Aldundiaren esku geratzen dira gazte horiei terapia eta bestelako laguntzak emateko ardura. Kasu larrietan Aldundiak berak hartzen du adin txikikoaren tutela. Iaz 6 kasu geratu ziren diputazioaren esku, eta horietatik 2tan, gaztetxoaren tutela hartu zuen bere gain foru aldundiak.

Menpekotasunak (adikzioak)

Gaur egun, tamalez, gero eta gehiago dira menpekotasuna edo adikzioa eragiten duten arrisku faktoreak: alkohola, drogak, ludopatia, internet, mugikorra...

Horiei aurre egiteko hainbat neurri eta zerbitzu eskaintzen dituzte udaleko Gizarte Zerbitzuek.

• PREBENTZIO LANA:

Udaleko gizarte langileek prebentzio lana egiten dute, ikastetxeekin elkarlanean, gurasoei formazioa eskainiz, sentsibilizazio kanpainak eginez, eta jai eremuetan arriskuak murrizteko programak abian jarritz.

• LAGUNTZA PERTSONALA ETA EKONOMIKOA

Adikioa gaintzeko tratamenduan dauden pertsonen eta hauen senideen joan-etorriek eragindako gasuei aurre egiteko dirulaguntzak ematen ditu udalak.

Bazterkeria arriskua

Egoera sozio-ekonomiko zailaren ondorioz, gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen zuzendutako ALDI BATERAKO ETXEBIZITZA zerbitzua dauka udalak.

Lau logelako etxebizitza bat da, eta une honetan 3 daude beteta.

Erabiltzaileen integrazioa (familiarra, laborala, soziala...) bideratzen laguntzea da helburua. Horretarako, Arreta Pertsonalizatuko Plan bat programatzen zaio erabiltzaile bakoitzari, gizarte langilearen tutoretzapean.

DATUAK

ADIN TXIKIKOAK

Babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoei laguntzeko 180 mila euro bideratu zituen iaz udalak; 22 familiatako 44 gaztek jaso zuten laguntza

ADIKZIOAK

Menpekotasuna gaintzeko tratamenduan dauden pertsonen eta hauen senideen garraio gastuak arintzeko laguntza ematen du udalak

BAZTERKERIA

Gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako aldi baterako etxebizitza zerbitzua dauka udalak



GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK COVID-19aren ONDORIOEI AURRE EGITEKO

BONU SOZIALAK oinarrizko produktuak herriko dendetan erosteko

Konfinamendu egoerak hainbat lan jarduera (formal eta informalak) etetea ekarri du, eta, ondorioz, era guztietako diru-sarrerak galdu dituzten herritarrak daude. Herritar horiek babesteko asmoz, udalak laguntza ekonomikoa emango die, gutxieneko baliabideak bermatzeko. Bonuen bidez emango da laguntza, Caritas elkartearekin lankidetzan, oinarrizko behar urgenteak bermatzeko, alarma egoerak dirauen bitartean: elikagaiak, garbiketa-produktuak eta higiene pertsonalekoak...

Kide bakarreko familia unitateek **30€**-ko asteroko bonua jasoko du, gehienez; bi kidekoa bada **40€**, hirukoa bada **50€**, eta horrela proportzioan. Bonuak, produktu horiek saltzen dituzten herriko dendetan trukatu ahal izango dituzte.

Udaleko gizarte-langileek osatuko dute laguntza hau jaso ahal izango duten onuradunen zerrenda, familia unitate bakoitzaren egoera aztertu ondoren, eta Caritaseko boluntario sareak egingo du erosketen eta onuradunen jarraipena. Udalak 50.000 euroko diru poltsa bisortu du laguntza hauetarako.

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK (GLL) indartu egin ditu udalak

Gizarte bazterkeria egoera prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko, aldian-aldian ematen diren prestazio ekonomikoak dira, beharrezkoak diren gastu espezifikoak (ohikoak zein apartekoak) aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonentzat.

Laguntza hauek batez ere etxebizitzako gastuei aurre egiteko izaten dira (alokairua, hipoteka, mentenimendua -argia, ura, gasa- eta norberaren beharizanetarako -arropak, oinetakoak, botikak...-).

Bizikidetzaren unitateko kide guztien diru sarrerak aztertzen dira dirulaguntzaren zenbatekoa finkatzeko. EAEn 6 hilabete erroldatuta egotea eta bertan bizitzea, eta urtebete lehenago sortutako bizikidetzaren unitatea izatea eskatzen da.

Dirulaguntza hauetarako, Eusko Jaurlaritzak **85.874** euro ematen dizkio udalari, baina horrekin aski ez denez, Oñatiko udalak beste **119.556** euro ipini ditu. Beraz, guztira, **205.430** euroko aurrekontua dago. Une honetan Oñatiko **64** familiek jasotzen dute GLL laguntza. Horietatik **18k**, COVID-19aren krisia sortu ondoren egin dute eskaera.

ETXEBIZITZA SOZIALAK alokairuaren kobrantza eten du udalak

Udalak alokairu-erregimenean dituen etxebizitza sozialetako errentak aldi baterako -apirila, maiatza eta ekaina- etetea erabaki du. Alokairua ordaintzetik salbuesteko, COVID-19aren ondorioz egoera ekonomiko kalteberan daudela egiaztatu beharko dute errentariek.



UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK

Bulegoak

Bidebarrieta kalea, 12.
20560 OÑATI

Telefonoa:

943 03 77 00

Faxa:

943 03 77 06

E-posta:

ongizatea@onati.eus

Ordutegia:

Astelehen, astearte,
osteguna eta ostirala:
zerbitzua zabalik izango
da ondorengo ordutegian.
9:00etatik -14:00etara

Asteazkenetan:

Bulegoa itxita egongo
da eta erantzungailua
egongo da.

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
 - Lentzeria
 - Umeen jantziak
- Kale Barria, 54 OÑATI


Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

► Torreauzoko bidegurutzean oinezkoen irisgarritasuna bermatzeko eta autobus geltokia ezartzeko AZTERLANA



Kolore urdinez, eraikita dagoen espaloi zatia, eta horiz, eraikiko dena.


Autobus geltokia eta espaloia egokituko ditu udalak Torreauzoko bidegurutze inguruan

Torreauzoko bidegurutze inguruan autobus geltokia egokitzeko eta oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko exekuzio proiektua enkargatu dio udalak Girder Ingenieros enpresari.

Girder-ek berak egindako aurre-azterketaren arabera, autobus geltoki bana egokituko da GI-2630 errepidearen alde bietan (ikusirudia), Urbieta industriagunearen ondoan. Autobusa geratu ahal izateko plataforma bana egokituko da, markesinarekin.

Bestalde, oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko asmoz, espaloi jarraitua eraikiko da Torreauzoko bidegurutzetik Otadui Zuhaitziraino, errepidearen alde batean, eta bidegurutzetik Kanpiazelairaino, beste aldean. Gaur egun ez dago espaloi jarraiturik gune horietan, eta oinezkoek errepidearen bazterbidetik ibili behar izaten dute zenbait lekutan, horrek dakarren arriskuarekin. Kontuan hartuz, inguru horretan langile bolumen handia mugitzen duten bi industria gune daudela, oinezkoen irisgarritasuna hobetzea erabaki du udalak, 1,50 metroko zabalera duen espaloi jarraitua egokituz Zubillagarako norabidean, eta 2 metrokoa herrirako noranzkoan. Harri-lubetazko horma txikiak ere eraiki beharko dira, aldameneko lursailak ixteko. Espaloi berriak eta autobus geltokiak egokitu ahal izateko 710 m²-ko lur azalera desjabetu beharko da.

Girder Ingenieros enpresak egindako azterlanak Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide eta Mugikortasun sailen oniritzia jaso du eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 119.517 eurotan (BEZ barne) finkatu da. Udalak eraikuntza proiektua idaztea (7.500 €, BEZ gabe) eta ondorengo lanen zuzendaritza (5.500 €, BEZ gabe) esleitu dizkio Girder enpresari.



AUTOBUS GELTOKIAK

Goiko irudian ikusten den moduan, autobus geraleku bana egokituko da GI-2630 errepidearen alde banatan, Urbieta industria gunearen ondoan. 20 metro luzera eta 4,5 metroko zabalera duen plataforma bana egokituko da, autobusak geratu ahal izateko. Markesina bana ere izango dute.

BIRIBILGUNERIK EZ

Torreauzoko bidegurutzean biribilgune bat eraikitzeko aukera ere aztertu du Girder enpresak. Ondoko irudian ikusten den moduan, biribilgunearen kokapen geometrikoa bideragarria da, baina inguruko urbanizazioak ezartzen dituen mugen ondorioz, errotondak 28 metroko diametroa edukiko luke, gehienez, eta errepide horrek egun duen trafiko-fluxua eta zirkulazio-intentsitatea aztertuta, ondorioztatu da teknikoki ez dela bideragarria.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



Laukiaren bidez adieazten da non egokituko duten biribilgunea

Errotonda baten bidez antolatuko da Munazategi sektoreko eta Garibai auzorako sarbidea

Udalak eta ULMA Taldeak lankidetzaz hitzarmena adostu dute proiektua aurrera ateratzeko

Munazategi industria eremuaren jabe den ULMA Taldeak pabilioi berriak eraiki nahi ditu bertan, taldeko hiru kooperatiben (Ulma Construction, Ulma Packaging eta Ulma Agrícola) plan estrategikoak garatu ahal izateko. Baina, horretarako, aurretik GI-2630 errepideko sarbidea egokitu behar du, Munazategi Plan Partzialean xedatutakoa betez.

Hori horrela izanik, Foru Aldundiaren jabetzakoa den GI-2630 errepidean, Duruaran errekararen gainean, biribilgunea egokitzeko proiektua landu du ULMAk. Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako departamentuaren eta URA Uraren Euskal Agentziaren oniritzia du egitasmoak.

Oñatiko udalak ere begi onez ikusi du proiektua, aukera ona izan daitekeelako inguru horretan dauden baserrietarako sarbidea hobetzeko, auzotarren aspaldiko eskariari erantzunez.

Beraz, Munazategi sektorera eta Garibai auzoko baserrietarako sarbide seguru eta irisgarri bat eraikitzeak duen garrantzia kontuan hartuz, udalak eta ULMA taldeak lankidetzaz hitzarmena adostu alde bakoitzaren betebeharrak eta proiektua aurrera atera ahal izateko baldintzak zehazten dituen.

BI FASE

Eraiki nahi den biribilgunea ez dago jasota Oñatiko Hirigintzako Arau Orokorretan eta, beraz, aldaketa puntuala tramitatu beharko da, eta baita obraren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura tramitzeko dokumentazioa ere.

Bien bitartean, ULMA Taldeak obraren exekuzio proiektua aurkeztuko du foru aldundian eta udaletxean, bi hilabeteko gehieneko epean. Proiektua bi fasetan banatuko da: biribilgunea alde batetik, eta baserrietarako adarra edo sarbidea, bestetik.

Errotondaren obrari dagokionean, Foru Aldundia arduratuko da proiektua gauzatu ahal izateko behar diren lursailak eskuratzeaz, eta ULMAk hartuko du bere gain proiektu teknikoaren idazketa eta obraren kostua.

Bestalde, Garibaiko baserrietarako sarbidea egokitzeko behar diren lursailen desjabetzea eta obraren kostua udalaren kontura izango da.

Errotondako lanak egin bitartean, udalak tramitatuko ditu Ulma Munazategin eraiki nahi dituen pabilioi berrien obra eta jarduera baimenak.

Lehen sektorera zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du udalak

Udaleko Landa Garapen sailak kudeatzen dituen dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago jada. Sei laguntza lerro daude: **1.** Nekazaritza ustialekuak modernizatzeko (**20.000€**); **2.** Azokan bertako produktuen salmenta sustatzeko (**18.500€**); **3.** Nekazaritza erabilerarako ura ordaintzeko (**600€**); **4.** Putzu septikoak garbitu eta instalatzeko (**3.000€**); **5.** Landa-auzoetako ermiten argindar kostua ordaintzeko (**2.000€**); **6.** Baso-bide pribatu nagusiak eraiki eta hobetzeko (**15.000€**).

Eskaerak aurkezteko epea kasu guztietarako abenduaren 31n bukatzen da, nekazaritza erabilerarako urarena izan ezik; kasu honetan eskaerak 2021eko urtarrilaren 1etik 31ra aurkeztu beharko dira. Bestalde, azokara produktuak eramaten dituzten nekazariak hiru hilean behin egin behar dute eskera, eta maiztasun berarekin jasotzen dute dagokien ordainsaria.

Azkoagainen hainbat hobekuntza lan egingo ditu udalak

Aloña Mendiko futbol sailaren eskariari erantzunez, Azkoagain futbol zelaian hainbat hobekuntza lan egitea erabaki du udalak. Alde batetik, argiztapen dorreetako lanparak aldatuko dira (6.218 euro) eta, bestetik, zelaia-kanpoaldeko sarea berrituko da, iparraldeko eta mendebaldeko zatiak, (8.736 euro) iazko abenduko azken egunetako haize zakarrak sarea txikitu egin baitzuen hainbat lekutan.

Euskadi etorbideko argi hariteria ea zoladura berrituko ditu udalak

Gipuzkoako Urak enpresa Euskadi etorbidean egiten ari den lanak aprobetxatuz, argindar azpiegitura eta zoladura berritzea erabaki du udalak, inguru horretako irisgarritasuna hobetzeko. Lan osagarri hauek 44.500 euroko aurrekontua dute.

Udalak errenta aitortpena euskaraz egitera animatu nahi ditu herritarrek



Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina parte hartuko du udalak, UEMArekin eta Foru Aldundiarekin batera. Ahalik eta herritar gehienek errenta aitortpena euskaraz egitea da helburua, euskaraz dagokion lekua izan dezan administrazio publikoan.

Iaz, Oñatiko herritarrek 6.710 aitortpen egin zituzten eta horietatik 2.106 euskaraz (%31). Urtez urte handitzen ari da kopurua, baina Oñatiko euskaldunen kopurua kontuan izanik, badago zer hobetua oraindik ere.

Aurten aurrez aurreko hitzorduak bertan behera geratu direnez, hiru modutan egin daiteke euskararen hautua: autolikidazio proposamena onartzean, *Zergabidea* plataformaren bidez aitortpena bidaltzean, edo, gestoria baten bidez eginez gero, Ogasunarekiko harremanetan euskara aukeratzeko borondatea adierazita.

Udalak hartutako neurri ekonomikoak adostutakoak direla argitu du EAJk

Covid-19ari aurre egiteko udal mailan hartu diren neurriak komunikatzerakoan EH Bilduk izandako jarrera salatu du EAJren udal taldeak prentsa ohar bidez. Konfinamendu garaian herritarrek emandako erantzun bikaina azpimarratu dute jeltzaleek, birusari aurre egiteko neurri onena elkarlana eta batasuna direla azpimarratuz. Ildo horretan, osasun krisiak eragindako ondorio ekonomiko larriei aurre egiteko, udal mailan hartu beharreko neurriak lantzeko mahaia sortzea proposatu zion gobernu taldeari, Ainhoa Galdos bozeramaleak adierazi duenez. Baina elkarlanean adostutako neurriak udal gobernuarenak balira bezala aurkeztu izana egotzi dio EH Bilduri. Elkarlanerako deia berretsi du EAJren udal taldeak, lehia politikoa denak ez duela balio gaineratuz.

Gobernu taldeak adierazi du ez duela ika-miketan sartu nahi eta lanean jarraituko duela, orain arte bezala, osasun krisiak herritarrei eragindako kalteak leuntzeko helburuarekin.

'Enpresa sortuz' ekimena jarri du abian MUK ekintzailetasuna sustatzeko

Mondragon Unibertsitateko Goi Mailako Eskola Politeknikoak 'Enpresa Sortuz' ekimena jarri du martxan, teknologian oinarritutako negozio ideia berriak garatzeko. Aurkezten diren proiektuen artean bat aukeratuko du eta 18.000€-ko laguntza emango dio proiektua garatzeko. Harremanetarako: eelizalde@mondragon.edu.



Osasun arloko maskarak birziklitzeko SPAIN proiektuan parte hartu du ULMAk



Sistema Presurizado Antiséptico Industrial y Neutro (SPAIN) proiektua Asturiasen abiatu zen elkarlanerako plataforma da. Oviedoko unibertsitateko David Hevia Sanchez medikuak jarri zuen martxan, osasun arloan erabiltzeko maskarak falta zirela eta, beste bide baten bila. Hala, maskarak garbitu, esterilizatu eta berriro erabiltzeko aukera ematen duen prozesua garatu dute, enpresa ezberdinen ezagutza eta bitarteko teknologikoak baliatuz. ULMA Packaging-ek prozesuaren azken urratsean parte hartu du, makina biltzaile bat propio egokituta.

Koronabirusari aurre egiteko Hackaton topaketan parte hartu du MUK

Mondragon Unibertsitateko Mondragon Team Academy-k bazkide gisa parte hartu du Europa mailako *hackatoian* apirilaren 24, 25 eta 26an. Koronabirusaren erronka desberdinentzako soluzioak azkar garatu eta hedatzea izan da helburua. Arlo ezberdineko erronkak planteatu dira: osasuna eta koronabirusaren iraupena, negozioen jarraikortasuna, urrutiko lana eta hezkuntza, kohesio sozial eta politikoa, edota finantza digitala.


Mondragon Team Academy-k 'Urruneko lana eta hazkuntza' gaiaren inguruko erronka zuzendu eta koordinatu du. Aldi berean, MTAko komunitateko kideak *arazo bideratzaile* edo *konpontzaile* gisa aritu dira parte hartzen. Europako 27 estatu kideetako ordezkariekin batera, Norvegia, Israel, Suitza, Turkia, Ukraina eta Erresuma Batuetakoak aritu dira.

ZURE ASEGURU GUZTIEN ANALISI PERTSONALIZATUA EGITEKO MOMENTU ONENA DA

EGOERARA EGOKITUZ ETA BEHARREZKO ZERBITZU BEZALA,
LANEAN JARRAITZEN DUGU.

ORAIN, ONLINE ERE: KONTSULTAK, BILERAK
EZBEHARRAK, ETB. (HITZORDUA ESKATUZ)





JESUS MARI ARZUAGA

Bete-betean argazkigintzari estu lotua

Hogeita hamaseiko gerra lehertu eta gutxira, urriaren 12an hain zuzen, jaio zen Oñatin gure protagonista patu txar eta gaizto batek jota: gorra jaio baitzen. Hor nonbait, umetxoak ez zuen kaleko kalaka zaratatsuak entzun nahi, edo bestela esanda, Jesús Mariren etorkizuna halabeharrez gidatua baizetorren.

Edozein modutan ere, orriotara dakarguna entzumen urritasuna gainditzeko istorioa da, bizitza oso bat kontakizun laburtxo eran idatzia, mutu ez den gor batek bizi izandakoak bere ezpainenatik jaso, berritsuena mututurik uzteko modukoa.

Oñati, 1957. urtea. “Arzuaga” argazki denda irekitzen du Miguel Angelek, zortzi senideko familian zaharrena, Alberto Schommer argazkilari maisuarekin bi urteko lanaldia Bitorixan bete ondoren. Anaia Jesús Mari “Garai” fabrikan guardasol makilak lantzen ditu eta sirena hotsa entzun ahala anaiarengana doa arratsaldero; **“Dena zan berria eta erakargarria niretzat. Anaia Mielanjelek magia moduko zerbait egiten zuen jendea eta etxeak paper orrietan agerraraziz”** diosku Jesús Marik, aspaldiko kontuok ahozker a garbi-garbian jaurtiz.

Anaiarekin emango ditu lehen urratsak argazkigintzan, argiaren eta itzalaren arteko esparru jolastian murgilduta. Bi urte beranduago eta gutxien uste zuenean anaia kotxe istripuz hilko da, eta 1960ko apirilean Jesús Marik anaiak zabalduko negoziaren kargu hartzen du; **“Kolpe latza izan zen familia osoarentzat. Ni neu indargabetuta sentitu nintzen, zer egin behar nuen nik jendaurreko tratuan, ez nintzen gai sentitzen egoera kudeatzeko, gazte gor bat negozioa aurrera atera nahian? Adoregabe, lur jota utzi ninduen anaiaren ezbeharrak”**.

Jesús Marik, baina, entzumenaren organoa galduta izanda ere txikitatik Zaragozan aurrena eta Bilbon hurrena, ahozkatze ikasketak egin zituen. Ikasle saiatua, maila ona lortu zuen, baita ezpain-irakurketan, hau da, entzun gabe bestearen ezpainei begira esaten ari dena ulertzeko teknika ikasi zuen, polito ikasi ere. Hastapeneko egunetan ez bezala bere ahozkatze maila onak asko lagundu zion negozioan; **“Beltzak eta gorriak pasa nituen bezero batzuen jarrera zela eta, paperean idatzita ekartzen**



zizkidaten aginduak: karretea errebelatu, zenbat kostatzen da? etabar, etabar paperean niri hurreratuz. Baina bezeroa beti bezero, eta aurpegi onena jarri behar. Geroxeago, jabetu zirenean ezpainei begiratzuz esanahiak jasoteko gai nintzela, harremanak hobera aldatu ziren eta negozioaren martxa ere bai”.

Lan urte-sasoi onena larogeiko hamarkadan kokatzen du Arzuagak, argazkiak ateratzeko afizioa ugaldu zenekoa, eta bidaiatzeko ohitura hedatu. Diapositiba karre-teak, zuribeltzezkoak, errebelatuak, argazki makinaren salmenta eta, zer esanik ez, ezkontza erreportajeen esparrua. Garai haietan ezkontza batek aurrera egingo bazuen, honako hiru baldintzak behar zituen bikoteak lotuta eduki: eliza edo epaitegiko ordua, jatetxeko erreserba eta argazkilaria. Kopeta zimurtzen du Jesús Marik galdera entzuten duenean baina segituan gogoratzen du bere lehen ezkontza erreportajea nori egin zion; “Mingain puntan daukat, itxoin, bai... Jose Luis Urrutia eta emazteari Arantzazun oker ez banago” erantzuten du gizonak irribartsu oroimenaren mapa ongi zabaldu duela jabetu ondoren.

Argazki kameraren artean hiru izan ditu gogokoenak Arzuagak; “Voigtlander” zaharra, alemaniakoa, berarekin trebatu bainintzen lehen urteetan, eta ezin ahaztu “Leica” markakoa, alemaniarra hau ere, kale argazkietarako eta paisaiak erretratatzeko bikaina. Ezkontzetarako, aldiz, “Hasselblad” formatu erdiko kamera suediarra erabili dut gehienetan”

Estudio lanetan ere ongi moldatu izan da umeekin, erretratoak egiteko orduan txikien atentzio osoa bereganatzen zekien Jesús Marik. Aurpegi, atzamar eta ahots keinuetan trebatua, umea poltsikoratu egiten zuen trikimailuok erabiliz, klik magikoa sakatu baino segundu bat lehenago.



Estudio lanetan ere ongi moldatu izan da umeekin; erretratoak egiteko orduan txikien atentzio osoa bereganatzen zekien Jesús Marik. Aurpegi, atzamar eta ahots keinuetan trebatua, umea poltsikoratu egiten zuen trikimailuok erabiliz.



Jesús Mari Arzuaga

Paisaia, kale erreportajea, kirola...hamaika esparru landu izan ditu; politikari, artista eta kongresista ugari ere. Oroimen bizi-bizia dauka Oteiza maisuarekin Arantzazun elkartu eta solasalditxoak izan ostean argazkia egin zionekoa; “Jorge artista famatu zen eta beti jendez inguratuta ikusten nuen. Urduri nengoen, hurreratu eta argazkia egiteko baimena nola eskatu asmatu ezinik. Gizonak, baina, lasai hartu ninduen eta ni pozik eskultore eta artista handia nire kamera barruan sartzea lortu nuelako. Denbora batera berriro elkartu ginen eta nik hartu nuen poza nitaz gogoratzen zela esan zidanean”

Berrogeita bat urte luzez jardun du Arzuagak izen bereko argazki dendan eta Maite Pascual emaztearen laguntza puntuala ere izan du, 2001. urtean erretiroa hartu zuen arte; “Oso pozik nago nire profesio izandako honekin, zortea ere izan dut ezen argazkigintzak aldaketa izugarria izan du digitalaren sorrerarekin, eta beldur nintzen digital esparrua erabat arrotza zelako niretzat”

Mila argazki, milaka klik (udaleko “Arzuaga fondoan” ikusgai), ilusio eta desilusio; desgaitasun baten kronika; entzumen urritasunaren gainditze froga positiboa; eta irudia positibatzen Arzuaga argazkilaria, aparta.

*“Garai fabrikariak guardasol makilak lantzen hasi nintzen, baina arratsalde-
ro anaiarengana joaten nintzen argazkigintza ikastera. Niretako magia zen anaiak egiten zuena, jendea eta etxeak paper orrietan ager araziz”*

“Anaiaren heriotza kolpe latza izan zen. Zer egin behar nuen nik argazki dendarekin? Ez nintzen gai sentitzen egoera kudeatzeko; gazte gor bat negozioa aurrera atera nahian?”

“Zaragozan aurrena eta Bilbon hurrena, ahozkatze ikasketak egin zituen. Maila ona lortu zuen baita ezpain-irakurketan.”





Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA: HORRELA EZI!

Peio Roa

Egun batean, zuzendaritza taldeak langile bati bere lanaldia %25,53 murriztuko dela jakinarazten dio. Honen aurrean, langileak bere desadostasuna adierazten die eta demanda bat jartzen du. Egun batzuk beranduago, bere opor egunetan, korreo elektroniko bat jasotzen du, hurrengo egunerako zuzendaritza taldearekin bilera batera deitua izan dela adieraziz. Hurrengo egunean, langileak, bilera horretara ezin duela bertaratu erantzuten du, eta bilera beste egun batean egiteko prestutasuna erakusten du. Erantzun bezela, egun horretan bertan, banku transferentzia bat jasotzen du in demnizazio kontzeptuarekin.

Sei egun geroago, langileak burofax bat jasotzen du, hitzez hitz hurrengo esanez: *“nos vemos en la necesidad de EXTINGUIR la relación laboral que nos une con usted”*.

Kontakizun hau entzun eta gero, edozeinek, langile hau “arima gabeko” enpresa haundi batean lan egiten zuela pentsa dezake. Ba ez. Langile honek 29 urte zeramatzan lanean Jose de Azpiazu Musika Eskolan, kudeaketa administratiboko arduradun gisa, non elkarte honek kultura musikala sustatzea duen helburu. Nik kultura eta heziketa musikala, baloreak transmititzeko instrumentu gisa ulertu izan dut

beti, eta gudan sentimentu eta emozio positiboak sortzeko tresnatzat.

Galdera batzuk sortzen zaizkit zuzendari taldearentzat (Aitor Madina, Arantzazu Bikuña eta Jaione Intxausti):

- Zeinek erabaki zuen/zuten modu honetan jokatzeari Defendatu eta onartzen duzue? Baiezkoa bada:

- Kaltetuak, ospe ukaezin batekin, tratu hau merezi zuela eta ez zegoela beste konponbiderik kontsideratzen duzue?

- Bazkideek eta finantzatzen duten erakunde publikoek, modu honetako jokabideak babesten dituztela kon-

tsideratzen duzue?

- Jokabide hauek, elkarte guztiari eskatu beharreko balore, printzipio eta etikarekin bat datozeela kontsideratzen duzue?

Inoiz ez da berandu, botere eta gaitasuna dutenek, kasua artxibatu aurretik, eta garden-tasunaren mesedetan, protagonista guztiei ahotsa eman eta ez isilarazi inor. Entzun daitezen nota guztiak. Modu honetan bakarrik jakingo da instrumentua ondo entzuten den, afinatu beharra dagoen edo berau erreparatu edo sokaren bat aldatu beharra dagoen.

Selma Huxley Barkham hil da



Euskal itsas historia ezagutzeko lanean aitzindaria izan zen Selma Huxley Barkham (Londres, 1927) ikerlari ingeles-kanadiarra hil zen maiatzaren 3an, 93 urte zituela.

Selma Huxley harreman estua izan zuen Oñatirekin, hogeitaz bizi izan baitzen gure artean, Sancti Spiritus unibertsitateko Protokoloen Artxibo Historikoan lan egiten zuen bitartean. XVI eta XVII. mendeetan

Kanadako kostalde atlantikora (Ternua, Labrador...) bakailaoa eta balea harrapatzera joaten ziren euskal arrantzaleen historia sakon ikertu zuen, milaka dokumentu aurkituz: espedizioen antolakuntza eta finantzazioa, barku motak, itsas-bideak, erabiltzen zituzten portuak, marinelen bizitza, lana eta heriotza, itsasontzien hondoratzeak...

1981ean Kanadako gobernuak ematen duen sari zibil gorena jaso zuen, eta Unescok Gizateriaren Ondare izendatu zuen Selmak Labradorren aurkitutako *Red Bay* portua. Donostiako Aquariumeko Urrezko Domina (2013) eta Eusko Jaurlearitzaren ‘Lagun Onari’ saria (2014) ere jaso zituen. Oñatiko udalak ere omenaldia egin zion 2016an, eta ‘Selma Huxley Barkham’ izena daraman ikerketa beka ere sortu zuen, herriko historia generoaren ikuspegitik aztertzeko.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Bizitzak aurrera darrai

Gizakiok etxean konfinatuta gauden honetan, oso bestelako errealitateak bizi dituzte gure larreetan bizi diren animaliek. Inoiz izan ez duten bakardadea eta la-saitasuna baliatuz, bizitza berria dakarte mundura. Alboko erretratuan, behor familia elkarrekin, jaiotza berriaren unean.



MERTXE ARREGI

MÁSMÓV!L

* Yoigo eta Orangeren estaldura

ZUNTZA 100 MB + MUGIKORRA 10 GB

+ DEI MUGAGABEEKIN

+ LINEA BAT GEHIGARRI DOAN 1GB

DEI MUGAGABEEKIN

+ LINEA FINKO BAT

39,90 € HILEAN

* BEZ barne

BETIRAKO!!

Bisita gaitzazu!

LINEA BERRIAK, PREZIO EZINHOBETAN

finetwork

* Vodafoneen estaldura

10 GB + DEI MUGAGABEAK

10,90 € HILEAN

* BEZ barne

PERMANENTZIARIK GABE

20 GB + DEI MUGAGABEAK

14,90 € HILEAN

* BEZ barne

BANATZAILE OFIZIALA

Zuzeneko arreta zerbitzua Másmóvil eta Finetwork konpainiekin eta SIM txartelen doaneko ordezkapenak

- Ordenagailu eta telefonoen salmenta eta konponketa
- Web orrien diseinua eta mantentzea
- Sareak
- Zibersegurtasuna
- ...

Atzeka Kale 32 Behea | T. 607 803 435 | aitzor@lizker.com | www.lizker.com

LIZKER

INFORMATIKA



Gure ekintzen berri emango duen atala...

NOLA BIZI DUTE OÑATIKO HAURREK ALARMA EGOERA?

Haurren azalean jartzea erraza da batzuentzat, egunaren 24 orduak baitaude haurrekin, beraien haurrekin, kontaktuan. Gu ere eurekin etengabeko harremanetan gaude, eta gu ere euren azaletan jarri nahi izaten dugu. Egoera hau hasi zenetik ere Txaloka ludotekatik, Gaztelekuko Kubotik eta Topalekutik harremanetan izan gara gure haur eta gazteekin. Eta artikulu honetan beraiengan sumatu ditugun hainbat emozio, eskaera eta kontaketa islatzen saiatuko gara.

Gehienek, hasieran, modu positiboan eta denbora aprobetxatzeko erabili zuten etxeko konfinamendua. Horretaz gain eskolara ez joateko, telebista ikusteko, lo gehiago egiteko, ... hori ondo baloratu zuten, eta eskertu zutela diote Ludotekako haurrek. Aldiz, denborak aurrera egin ahala bestelako emozioak eta beharrak sumatu dituzte.

Haserreak, gogo falta, tristura, berdinkideekin harremantzeko beharra, mugitzeko beharra, nekea, asperdura, nahasmena, egonezina, ... eta transmititzen jakin ez arren, honakoak nabaritu ditugu haur txikiengana Ludotekatik. Bestalde, asko eskertu izan dituzte iturri ezberdinetatik heldutako baliabideak, ipuinak, errezetak, eskulan proposamenak, ... Dena den, gehien gustatzen zaiena zuzenean hezitzaileekin edota beraien kideekin hitz egitea izan da. Horretarako bideo deiak aproposak izan dira. Hala ere, pantailetatik aldentzeko erronka hor dago, eta ez da makala. Hori ere batzuk aipatu digute, horrena ere nekatu direla.

Aproposa izaten ari da ere etxeko egonaldia, Kuboko haurrek esandakoagatik, etxekoekin gehiago egoteko, gehiago jolasteko eta balkoietako animazioa (espresio bide berria) ezagutzeko. " Ikastolako lanekin, musikakoekin, jolasten...asko entretenu naiz eta gurasoekin batera sukaldean asko ikasi dut, eta oso ondo pasa dut baita".

Apirilak 26a geroztik kalera irteteko aukera dute haur eta nerabe batzuk: "arrarua izan da, begiak ere arraro nekan, gorputzian pittin bat ahujeta moruen, ta kaliak hutsik! Aittajauna ta amandria urrutitik ikusituta, ta txutxe batzuk erosi". " Kalia oso haundixa iñ xakun". Gure partez, haurrak irten ahal izateko neurria oso positiboa dela uste dugu, lehenago hartu beharreko neurria zela akaso. Errealitateaz kontziente izanda noski! Haur eta nerabeengan pentsatzeko momentua dela uste dugu, hau da, beraien beharrei lekua egin eta entzun.

Haurren batek aldiz, kalera ateratzeko gogo falta zeukala adierazi digu, nagitasuna, ohitura falta... "etsaia kalean badago, zergatik hurbildu?".

Topalekuko nerabe gehienek konfinamendua ondo eta lasai pasa dutela esan digute. Lagunak, normaltasuna eta eurekin etxean bizi ez den familia izan dira gure gaztetxoek faltan gehien bota dutena. Beldurra ere sentitu dute batzuk, gaixotasunari eta inguruko bat galtzeari adibidez.

Lagunekin bideo deiek, etxean kirola egiteak, etxeko-lanek kasuren batzuetan, bideo-jokoek beste zenbaitzuetan, ... izan dira egonaldia hobeto igarotzen lagundu dietenak gure gaztetxoek esanetan.

Esan bezala, "alarma egoeran" bizitako momentuak asko izan dira, hain berdinak eta hain ezberdinak diren Oñatiko gure ume eta nerabeen artean. Bizitzako lerroa ez dela zuzena ere bagenekien, eta bizitzaren kurbak agerian geratu dira egun hauetan zentzu askotan. Esperientzietatik haziko diren umeak dira oñatiarrak, eta kurba honetatik ateratzean konturatuko gara bizipen honek ere ikasteko balio izan digula, izan ziur!

PANDEMIA, EKONOMIA ETA ETORKIZUNA



Ezinbestekoa da une honetan Covid-19aren pandemiaren ondorioz bizi garen testuingurua aipatzea, egoera ezezaguna, orokorra eta aurreikusi ezin diren ondorioak dakarkigulako. Oso goiz da jakiteko zein den arazoaren tamaina eta epe labur zein er-tainean izango duen bilakaera; izan ere, faktore ugariaren mende dago: koronabirusaren portaera, hiritarren jokabideak, herrialde pobretuetan izango duen erag-ina, txerto eraginkor baten es-ukuragarritasuna, etab. Baina da-kigunaren arabera, kostu handia izango du –izan du dagoeneko– hildakoetan, eta inpaktu sakona enpleguan, tokiko, eskualdeko zein munduko merkataritzan, nazioarteko finantzetan, politika publikoetan, askatasun mailan, eta abarretan. Baina dagoeneko, ondorio orokor batzuk atera di-tzakegu.



Luis Guridi

Lehenik eta behin, hamarkada askotan lehen aldiz, konturatu gara gure gizarte superteknolo-gizatuak eta ustez urra ezinak, hauskorrek direla; izan ere, zo-morro txiki batek larritu, geldia-razi eta hankaz gora jarri gaitu. Eta badirudi, etorkizunean etorri daitekeenaren abisu bat besterik ez dela.

Bigarrenik, gauza garran-tzitsuen garrantzia agerian utzi du, lehentasunak birpentsatu beharra planteatu digu: gure se-nide eta lagunen osasuna eta zaintza, gure adineko eta se-me-alaben arreta, gizarte-talde kolpatuen babesa, kolektibo askoren konpromisoa –osasun-langileengandik hasita–, herri-tarren elkartasuna, eta abar. Zaintzarekin zerikusia duten gauza guztiak, hain zuzen. Ez du zentzurik ekonomia eta bi-ziaren artean aukeratu beharra planteatzea, zaintzaren ekono-mia erdigunean kokatu beharra dago.

Hirugarrenik, krisi honek publi-koaren papera eta garrantzia ja-rri ditu eztabaidaren erdigunean. Dena pribatizatu eta merkanti-

lizatu duen merkatu-sozietate honek, publikoa denaren era-ginkortasunik eza aldarrikatu eta pribatua sakralizatu den gizarte honetan, bat-batean, Estatuak denen erreskatara joan behar izan du, AEBak eta EB barne. 2008ko krisian gertatu zen, eta etorkizunean ere gertatuko da.

Amaitzeko, krisi honek, kli-ma-aldaketaren aurrean dugun hauskortasuna eta ahultasuna erakusten digu, baina are la-rriagoa egiten duen desberdin-tasunarekin. Covid-19aren au-rreran, jendeak neurri zorrotzak hartu ditu arriskuan sentitu de-nean. Baina klima aldaketak ez digu aukera hori emango; arris-kua agerian, begi bistan gera-tzen denean, beranduegi izango da, eta ez da txertorik egongo. Gure lehentasunak birpentsa-tzeak, benetan garrantzitsuak diren gauzak gizartearen erdigu-nean jartzeak baino ez digu sai-hestuko. Gizarte inertiak sendo-ak dira eta aldaketak zailak eta motelak, baina errealitatea bera agian latzagoa suertatuko da. Abisu serioa da. ■

EMIL CIORAN



Erromanian jaiotako idazle ospetsu honek (1911-1995), bere literaturan eta idazlanetan bizitzak so-tzen dituen sufrimendu, oinaze, katastrofe, gerrate eta azkenik heriotzaren errealitate minkorrek hausnartu zituen. Idatzitan, bizit-zari buruzko ohikoa ez den bere ikuspegi gogorra, berezia eta sakona azaldu zuen.

Berak idatzitako liburuen ar-tean bi dira ezagunenak. Bata, 'Del inconveniente de haber na-cido'. Bestea 'Conversaciones'. Bietan, gizakiaren bizitza azter-tuta, ideia konstante bat darabil buruan berekiko:

“Zorigaitz bakarra eta egiatzkoa hauxe da: jaiotzea”.

“Nire amak, pope ortodoxo baten emaztea bera, sekula

ahaztuko ez dudan zerbait esan zidan behin: “Emil, zer nolako barne sufrimendua (loa galtzea, urtetako insom-nioa) jasan behar izan zenuen. Aurrez jakin izan banu, ez zintudan mundura ekarriko, abortatu egingo nukeen”. Hitz horiek on egin zidaten. Zori-gaitz baten fruitua garela eta ez garela ezer jakiteak”.

“Zorionsua mundu hone-tara behin ere etorri ez dena”.

“Ez jaiotzea da, inolako za-lantzarik gabe, dagoen formu-larik onena. Baina hau, zori-tzarrez, ez dago inoren esku”.

Existentziak berekin duen su-frimenduarentzat badu Cioranek barne desio eta soluziobide gor-din utopikoa.

“Ahalguztiduna banintz, gi-zakia desegingo, ezereztuko nuke”.

“Bihar gizateria desagertuko balitz, berdin litzaidake. Giza-

kia desagertzearen ideiak ez dit atsekaberik sortzen”.

Ez da erraza pentsakizun guzti hau ulertzea eta onartzea. Bizit-zari erantzun zorrotza eta au-sarta ematen dio behintzat, guri pesimista edo ezkorra dela iru-ditu arren. Munduratu gaituzte-nez, aurrera egin beharra dago.

“Bizitzak inolako zentzu-rik ez izatea, horra bizitzeko arrazoi bat; arrazoi bakarra, berez”.

Bai! Bizi beharra dago. Emilek dio:

Gizakiak, urteen zama bi-zkarrean eta hezurak gogor-tuta, bizitzari buruz hausnar-tzen duenean, bata zein bestea esan ditzake: “Hau poza bizi izana!” edo “Hobe nukeen jai-o ez banintz”. Bi jarrerak dira bata bestea bezain zilegi eta sakonak.

Parisen hil zen laurogeita lau urtekin. ■



Bittor Madina



KONFINAMENDUA ETA HERRIKO KIROLARIEN ERREALITATE BERRIA

Erresilientzia garaia

Perfil ezberdineko kirolarien istorio eta egunerokoa gertuagotik ezagutzeko aukera eskaini digu 'Etxean kirolariekin solasean' saioak ▶ Izero Elorza alkatea izango da azken gonbidatua.

Arazo, ezbehar eta trauma bati aurre egiteko gizakiak garatu duen gaitasuna. Horixe da, hain zuzen ere, COVID-19 pandemiaren osteko konfinamendu gogorrek gizaki askorengan betirako iltzatuta utziko duen bertuteetako bat: erresilientzia.

Gizarteko alor ezberdinetan bezala, egoera berri honetara egokitzea tokatu zaie azken asteetan herriko kirolariei. Eta gogorra izan bada ere, mentalki entrenamendu bikaina izan da guztientzat. Batzuek gaizki eraman dute itxiera, beste askok ostera, egoera berrira egokitu eta indartuta ateratzeko baliatu dute esperientzia.

Bada, behartutako geldialdi honek, herriko hainbat kirolari gertuagotik ezagutzeko aukera bikaina eskaini digu. Pasaden hileko alean argitaratu genuen bezala, Aratz Losada Pérez Oñati Irratik kirol saio berriemailearen ekimenez, perfil ezberdineko kirolarien egunerokoa nola aldatu den ezagutzeko aukera izan digu. 'Etxean kirolariekin solasean' elkarrizketa saioak, Oñatiko kirolzaleak inoiz baino gehiago elkartu ditu. Eta Losadak berak adierazi digunez, «aurreikuspen guztiak gainditu» ere bai. Batzuek beste 200 ikusle inguru elkartu baitira zuzenekoetara. «Konfinamendu garaian kirolariekin kontaktuan mantentzea eta entrenamendu

saio bat egitea zen helburua eta uste dut, agindutakoa bete dugula» dio Losadak.

PERFIL EZBERDINAK

Kirolaren esparrua oso aberatsa izan da betidanik Oñatin eta alde horretatik ere, aniztasun handiko perfilak elkartu ditu saioak: ikasleak, irakasleak, langileak, okinak, gurasoak, kazetariak, udaltzainak, artzainak, amateurak, profesionalak, erizainak...denetarik egon da. «Oso garbi izan dut hasieratik, irratian egiten dudana bezala, ahalik eta kirol gehienei eman nahi niela publikoki merezi duten errekonozimendua eta hein handi batean, horixe izan da saio honen arrakasta nagusia».

Hori horrela, kirola oinarri izanik, batez ere, «elkarrizketa pertsonalak» izan direla onartu digu ekimenaren bultzatzaileak. «Hasieratan urduri samar egon dira gehienak. Baina uste dut pare pare zabaldu zaizkidala eta kasu askotan, istorio pertsonal hunkigarriak kontatzera ere iritsi direla» gaineratu du.


EGUNERO 20:05EAN

Lehen lerroan lanean ibili diren profesional guztiei txalo egin ostean hasten da saioa, iluntzeko 20:05ean. Aratz Losadaren Instagrameko

35

KIROLARI EZBERDIN

gertuagotik ezagutzeko aukera eskaini digu elkarrizketa saioak.



perfilean (@a3losada) ikusi ahal dira eta 45 bat minutuz, gidariaren galderak zein ikusleek planteatutakoak erantzun behar izan dituzte orain artean saiotik pasa diren 33 protagonistek. «Aste bereziak izan dira. Jendeak konektatu egin du programarekin; ederra izan da. Elkarlanean gauzatu den proiektu bat izan dela esango nuke. Oso *feedback* positiboa jaso baitut» dio.

ALKATEA AZKEN GONBIDATUA

Konfinamendu neurriak arindu egin direla kontutan hartuta, saioa maiatzaren 8an amaituko da. Eta Losadak ez du nolana hiko gonbidatua aukeratu azken programarako. Izan ere, Izaro Elorza alkatea izango da, 'Etxean kirolariekin solasean' saioko azken gonbidatua.

@a3losada

ARATZ LOSADA PÉREZ
egitasmoaren bultzatzailea



ESKERRIK ASKO!!

Kirolariekin kontaktuan mantentzeko eta batez ere, konfinamendu garaiko egunak entretentzeko abiatu nuen egitasmoa. Eta egiari zor, aurreikuspen guztiak gainditu ditu.

Zuetako batzuentzat bezala, niretzat ere, bizitzen ari garen garai gogor honetako momentu onena izan da elkarrizketa saioa.

Kirola abiapuntu izanik ere, istorio eta hausnarketa pertsonal zoragarriak entzun ditugu. Pantaila eta sarea ahaztu eta pertsonatik pertsonara, bihotza irekiz egindako solasaldiak izan dira.

Herri baten aberastasuna ez nuke arlo ekonomikoan soilik neurtuko. Gizarte aberats eta indartsu bat, norbanakook batuz egiten dugu. Ez dira betiko garai onenak. Baina ez etsi, eutsi!



caravanas oñate bizikleta dendaren izena eta irudia aldatu ditugu

hau da dendaren izen berria:

Oñabike

Ofatari 25, Ofati
Tel.: 943 78 05 65

bisita gaitzazu!!



Mendizaletasuna eta musika uztartuko dituen zeharkaldia

UZTAILAREN 14tik ABUZTUAREN 1era, ANGULO BORTUTIK HIRU ERREGEEN MAHAIRAINO, MENDIZ MENDI, MUSIKA EDERRAZ GOZATUZ

Mendiak eta Herriak elkarteak eta **Et Incarnatus** orkestrak antolatuta, Euskal Herriko URMUGA zeharkaldia egingo da uztailaren 14tik abuztuaren 1era. Mendi zeharkaldi berezia izango da, mendia eta musika uztartuko baititu.

Kantaurira eta Mediterraneora doazen urak banatuz, Euskal Herria ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duen ertz luzeari esaten zaio Urmuga, eta bide hori jarraituz egingo da zeharkaldia, Angulo Bortun (Salvada mendilerroa, Araba) abiatu eta Hiru Erregeen Mahairaino (Añamendiak) 19 egunetan, mendatez mendate, gailurrez gailur.

Baina URMUGA ez da izango mendi ibilaldi soila. **Et Incarnatus** orkestrako kideek kontzertuak emango dituzte ibilbidean zehar; batzuk mendiguneetan eta beste batzuk mendien inguruko herrietan. Hamalau emanaldi guztira. Leku berezi eta esanguratsuetan betiere.

Mendi ibilaldi musikatua izango da, beraz. "Bai, hau ez da kirol erronka bat. Natura eta

gizakia musikaren bidez harremantzeko ekimena da. Urmugaren inguruko herriak eta pertsonak harremanetan jarriko dituen ekimen kultural-poetikoa" dio Felipe Uriartek (*Mendiak eta Herriak*).

Ibilbidean zehar ez da mendian lo egingo, eguneko ibilaldia amaitzen den inguruko herri txikiak aterpe edo ostatueta baizik, pentsio erdian. Modu horretan, herri txikiak biziberritzeko borondatea ere badu egitasmoak.

AUKERA EZBERDINAK

Mendiak eta Herriak elkarteak koordinatuko du zeharkaldia eta mendizale-musikazale guztiei irekia dago. Aukera ezberdinak daude gainera: nahi duenak zeharkaldi osoa egin ahal izango du, baina astebeteko (Urmugaren 6 eguneko zati bat) edo bi astekoa, edo asteburukoa egiteko aukera ere egongo da. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko: 948513233 / 685750763 / info@mendiaketaherriak.eus.

"Ez da kirol
erronka
bat; ekimen
kultural
poetikoa
izango da"

FELIPE URIARTE
Zuzendari teknikoa



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOIA





14 KONTZERTU 7 mendietan eta 7 herrietan

ET INCARNATUS orkestrak 14 kontzertu eskainiko ditu Urmuga zeharkaldian. Horietako zazpi mendian (Tologorri, Allutz-Anboto, Azikorri...) eta beste hainbeste mendien inguruko herri txikietan (Murgia, Otxandio, Ataun...). Oraindik zehaztu gabe daude emanaldi guztiak, baina asmoa da herrialde bakoitzean bina kontzertu ematea. Orkestrarekin batera euskal musikari ezagun askok parte hartuko dute kontzertuetan: Maddi Oihenart, Mikel

Urdangarin, Maixa Lizarribar...

"Aspaldi ari gara mendian musika egiten. Ihesbidea eta pasioa da guretzat"

MIGEL ZEBERIO
Zuzendari musikala

Migel Zeberioaren zuzendaritzapean, 1996an dozena bat musikari gaztekin sortutako ganbara orkestra da *Et Incarnatus*. Bere ibilbidean zehar nazioarte mailako musikari eta zuzendari askorekin lan egin izan dute, eta askotariko musika estiloak jorratzen dituzte: jazz, pop, kantautoreak, musika garaikidea... Euskal musikari eta talde askoren (Imanol, Mikel Erentxun, Benito Lertxundi, Iñaki Salvador, La Buena Vida, Javier Muguruza...) diskoetan ere parte hartu du *Et Incarnatus*-ek

IKASTARO IBILTARIA

Musikaz gozatzearaz gain, ikasteko aukera ere egongo da Urmuga zeharkaldian. Jardunaldi bakoitzaren amaieran *masterclass* erako espezializazio tailerrak egingo dira musikari adituaren eskutik, instrumentu eta musika-estilo ezberdinak landuz. Gainera, kontzertuetan parte hartzeko aukera izango dute ikasleek. Informazioa: 653 747 780 / etincarnatus.orkestra@gmail.com.

ZEHARKALDIKO PROGRAMA

- 01. UZTAILAK 14** / Angulo portutik (720m.) - Urduña portura (900m.) Gorobel (Salvada) mendilerroan barna. Gailurrak: Urieta (1.113m.), Eskutxi (1.178m.), Tologorri (1.066m.). **6-7 ordu**
- 02. UZTAILAK 15** / Urduña - Altube portura (650 m). Gibijo mendilerroan zehar. Delika ur-jauzia. Gailurrak: Peña Erea (1.110m.). **5-6 ordu**
- 03. UZTAILAK 16** / Altube - Barazar portura (607m). Gorbeia Parke Naturala zeharkatuko dugu. Gailurrak: Gorbeia (1.475m.), Aldamin (1.376 m.). **9 ordu.**
- 04. UZTAILAK 17** / Barazar - Krutzeta portura (690 m). Urkiola Parke Naturalaren bihotzean. Gailurrak: Orixol (1.127m.), Anboto (1.296m.). **7 ordu.**
- 05. UZTAILAK 18** / Krutzeta - Arlaban (587 m). Aramaio eta Legutio artean. Gailurrak: Jarindo (694m.), Maroto (864m.). **5 ordu.**
- 06. UZTAILAK 19** / Arlaban - Aumuategi - Usakoetxena (920 m). Elgea mendilerroan, gainik gain, Zadorra urtegia begibistan. Gailurrak: Mugarriluze (1.109m.). Araotz. **7,5 ordu.**
- 07. UZTAILAK 20** / Usakoetxena - Otzaurte portura (652 m). Urkila gainetik, Aizkorri aurrez aurre. Gailurrak: Zekilaga (1.152m.), Pin-pil (1.279m.), Aizkorri (1.528m.). **8-9 ordu.**
- 08. UZTAILAK 21** / Otzaurte - Lizarrusti portura (615 m). Altzania basoetan murgildurik: kromlech eta trikuarriak. Gailurrak: Intsusburu (946m). **6,5 ordu.**
- 09. UZTAILAK 22** / Lizarrusti - Albiasu herrira (617m.). Aralar iparraldean, larre zabalak, basoak, gure mitoen mendia. Gailurrak: Putxerri (1.296m.), Errenaga (1.282m.). Arkuek.
- 10. UZTAILAK 23** / Albiasu - Orin-gaña lepoa (990 m). Larrau, Araxes, Leizarán eta Ezkurra ibaiak sortzen dira gain hauetan. Gorriti herria. Elostas (980m.). **6 ordu**
- 11. UZTAILAK 24** / Orin-gaña - Belate (847m). Ultzama eta Baztan artean, antzinako Kontrabandisten bideetatik. Gailurrak: Ireber (1.197m.). Larremiar galtzada.
- 12. UZTAILAK 25** / Belate - Urkiaga lepora (912m). Argintxo lepotik, Auñamendietako korapilo geologikoa. Gailurrak: Saioa (1.418m.). Belateko galtzada. **7,5 ordu.**
- 13. UZTAILAK 26** / Urkiaga - Ibañeta (1.057 m). Kintoako mendietatik, Ibañetara, Auñamendietako atea. Gailurrak: Adi (1.459m.), Mendiaundi (1.213m.), Lindux (1.220m.).
- 14. UZTAILAK 27** / Ibañeta - Errozate (1.076m). Lepoeder, Bentarte, Arnostegi, Organbide, historiaz beteriko mendi atakak. Gailurrak: Urkulu (1.423m.). **8 ordu.**
- 15. UZTAILAK 28** / Errozate - Burdinkurutzeta (1.135 m). Okabe aurkituko dugu, Euskal Herriko estazio megalitikorik garrantzitsuenak. Gailurrak: Okabe (1.456m.). **7 ordu.**
- 16. UZTAILAK 29** / Burdinkurutzeta - Bagargiak (1.327m). Zuberoako mendietan. Iratiko Txaletetan lo egingo dugu. **7 ordu.**
- 17. UZTAILAK 30** / Bagargiak - Larraineko lepoa (1.573m). Orhi Mendira helduko gara: "Orhiko txoria, Orhin laketa". Gailurrak: Zazpigaina (1.765m.), Orhi (2.017m.). **8,5 ordu.**
- 18. UZTAILAK 31** / Larraineko lepoa - Erraize (1.578m). Holtzarte, Kakueta goitik. Gailurrak: Otxogarrigaña (1.923m.). **8,5 ordu.**
- 19. ABUZTUAK 01** / Erraize - Hiru Erregeen Mahaia (2.446m). Auñamendi. **9 ordu.**



Zure etxebizitzaren hobetzeko prest

Amalia igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ilogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak

tel: 677 31 20 57 • email: amaliigartua@gmail.com • Oñati

2020ko ospakizun guztiak bertan behera uztea erabaki du Oñatzek

Aurtengorako aurreikusita zeuden ekitaldiak 2021era atzeratzea erabaki du

Oñatiarrok dakizuenez azken hilabeteetako ekintzak bertan behera utzi behar izan ditugu COVID-19a dela-eta. Eta, itxaropentsu aritu bagara ere, aurreikuspenak ez dira batere onak, aurrera begira. Hortaz, koordinatzaile taldeak proposatuta eta urteurrenoko lan talde txiki guztietako arduradunek onartuta, erabaki dugu 2020. urteko ekitaldi eta ospakizun guztiak bertan behera uztea.

Erabaki zail bezain gogor hori hartzeko arrazoiak hainbat dira: alde batetik, uda osteko hilabeteetarako ez dago ziurtasunik bat ere ez, beste alde batetik, lan talde txiki horiek guztiek ziurgabetasun horretan lan egiten jarraitzeko eskatzeari ez diogu zentzurik hartzen, izan ere, arazoak izango lituzkete edozer kontaktu egiten dutela ere, eta, azkenik, balizko ekitaldiek aurrera egingo balute ere izango diren politika murriztaileen berri ez daukagu oraindik, eta, ziur asko, guztiak eraldatu beharko genituzke.

Hori guztia horrela izanda eta guztiontzat onena dela pentsatuta, erabaki dugu 2020. urterako aurreikusita geneuzkan jarduera guztiak 2021. urtera atzeratzea. Pentsatuko duzuen moduan, erabaki hau hartuta ere ez dakigu datorren urtean zelan izango den egitaraua, ezta ere zelan bizitzeko aukera izango dugun, baina, behintzat, urtebete atzeratuta denbora eta arnasa pixka bat hartuko dugu perspektiba hartu eta datorrenari aurre hobeto egiteko.

Bien bitartean aurreko hilabeteetan zuekin partekatutako proposamenak helarazten jarraitzea gurako genuke, eta zuekin dugun hartu-emana sendotu; izan ere, etxean bagaude ere, dantzariak gara eta gogotsu jarraitzen dugu. Horregatik guztiagatik, jarrai gaitzazue gure sare sozialetan eta edozein proposamen, mezu, kritika edo dena delakoarekin egingo dugu aurrera. Aupa Oñatz!

'OÑATZ 50' Komunikazio taldea





Iban Idigoras
(bateria),
Iñigo Palacios
(kitarra),
Aitor Regueiro
(ahotsa),
Tommaso Galati
(kitarra) eta
Axibar Urteaga
(baxua) dira
BIZARRO

Bizarro taldearen aurkezpen diskoa prest

Deshumanizazioa izeneko aurreneko diskoa plazaratuko dute maiatzaren 11an

Bizarro taldeak bere lehen diskoa plazaratuko du datorren astean. *Deshumanizazioa* du izena lanak, eta bost kanta biltzen ditu, rock ilun estilokoak.

Diskoaren izenak aditzera ematen duen moduan, gizakion miseriei kantatzen diete. "Gure barruko hipokresiarri harramazka egin nahi izan diogu, zauri horietan haziak landatu eta gizatasun printzak loratuko diren jakiteko" adierazi dute taldekideek.

Elkarlanaren bidetik, autoekoizpenak sustatzen dituen *Almehuna* zigiluaren eskutik atera dute diskoa. Oñatiko *Zai Zoi Bele* kolektiboaren lokalean grabatu zuten iazko maiatza eta aurtengo otsaila artean. Nahasketak Tommaso



Galatik egin ditu eta masterizazioa Stefano Marianiren estudioetan (PM9) egin da, bere gidaritzapean. Deseinuaz eta maketazioaz Iban Idigoras arduratu da.

SARE SOZIALETAN

Bizi dugun egoera berezia dela eta, sare sozialen bidez

Bizarro taldearen sare sozialetan (Facebook, Instagram...), zintzilikatuko dituzte kantak, eguneko bat, maiatzaren 11tik aurrera, eta hilaren 16tik aurrera disko osoa entzungai egongo da.

aurkeztuko dute diskoa, ezinbestean. Maiatzaren 11tik aurrera kanta bana zintzilikatuko dute taldearen sare sozialetan (*Facebook, Instagram...*) eta hortik aurrera *Spotify* eta antzeko plataformetan egongo da entzungai.

Egoerak baimentzen badu, irailean eskainiko dute au-

rreneko zuzenekoa, eta orduan eskuratu ahal izango dugu diskoa USB formatuan, taldearen bideoklipa eta argazkiekin batera. Ez dute CD formatuan aterako.

Duela urte eta erdi sortu zen *Bizarro* taldea. Izenaz galdetuta, hauxe azalpena: "Bi jatorri ditu, biak ere oso antzekoak. Alde batetik, euskarazko *bizarra* hitzetik dator, eta ausardiarekin lotzen da bere definizioa. Bestetik, italierazko *bizarro* hitzetik, pertsona kementsua, odol berokoa. Bi definizioak konbentzitu harturik, hausnarketa hau egin dugu: gizakia kaio-latutako mounstro beldurti bat besterik ez da".

"Kaiolan sartu berri dagoen animaliak eraso egiten du asko gerturatzeko bagara. Beldurra da ekintzaren jatorria, gure kode genetikoan dagoen bizirauteko senaren parte da. Instintu honek idatzi du historia: gudak, genozidioak, bortxaketak... eta ohartu gabe egunero onartzen dugun eta gidatzen gaituen sistema deshumanizatu" gaineratu dute taldekideek. ■

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Maiatzean Gasteizen egin ohi den 'Poetak Maiatzean' Nazioarteko

Poesia Jaialdian aurkeztu beharreko erakusketa mimoz eta ilusioz prestatzen ari zen, baina bertan behera geratu da Koronabirusaren ondorioz. Uztailean egingo du hurrengo erakusketa, Gasteizko Elkar liburu dendan –birusak baimentzen badu– eta hara begira jarrita dago, jada, Iñaki Jauregiartzo, Araian (Araba) bizi den artista oñatiarra.

Berrogei urte dira buztina lantzen hasi zela. Araia joana zen, irakasle, eta eskulan tailer batzuetan izan zuen lehen kontaktua buztinarekin. Uda partean La Bisbaleko (Girona) zeramika eskolan ikasi zuen tornua erabiltzen, eta horrexek harrapatu zuen, tornuaren magiak. Gero, Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan egin zituen kurtso pare bat, eta Iñaxio Zarketak alde zaharrean zeukan beira-tailerreko txoko batean ipini zituen tornu eta labe erosi berriak. Gerora, behin baino gehiagotan joan izan da La Bisbalera, eta uda partean ere ikastaro ugari egin izan ditu zeramikagile ospetsuekin (Angel Garraza, Rafa Pérez...).

Euskal buztintza tradizionala lantzen hasi zen; buztin gorri eta esmalte zuriz egindako katiluak, pitxerrak, pegarrak (ura buru gainean etxeratzeko erabiltzen zen ontzia)... Apaingarri handirik gabeko ontzi garbiak, euskal tradizioan ohikoa zen soiltasuna errespetatuz.



Tradizioaren eta esperimentazioaren artean

Euskal buztintza tradizionala alboratu barik, bide berriak urratu zalea da Jaltzo

BIDE BERRIAK URRATUZ

Denborarekin, baina, bide berriak urratzeari ekin zion Jaltzok. Buztintza tradizionala alboratu barik, tornua alde batera utzi eta ideia, kontzeptu eta lanketa-molde berriei bidea eman die, forma, kolore, konposizio eta euskarri ezberdinekin esperimentatuz.

Oñati eta Arantzazu (Oteiza) oso presente egon

dira bere sormen prozesuetan, eta, hala, Korpuseko dantzarien edo Arantzazuko apostoluen eta Pietatearen irudi sorta ederrekin harritu gaitu.

Azkenaldian azulejuekin ari da lanean. Serigrafiatuaren teknika baliatuz, kolore eta irudi ezberdinekin apaintzen ditu. Aloñako magalaren irudia moldatu du azken

lanetan, koloreekin jokatuz urtaro ezberdinak irudikatuzeko. Esgrafiatuaren teknika aplikatuz, euskal kultur arloko pertsonaia ezagun askoren aurpegiak ere irudikatu ditu, buztin beltza eta engobiak (gorria eta zuria) erabiliz.

Une honetan, Koronabirusaren garaian hainbesteko zeresana ematen ari diren musuko edo maskarillak irudikatuzeko aukera ezberdinak aztertzen ari da, eta balearen irudiarekin ere ari da lanean. "Euskal Herriaren historian eta kulturean protagonismo berezia izan du baleak, eta horren inguruko lanketa bat egin nahi nuke, bide batez itsasoetako kutsadura salatzeko, baina oraindik oso berde daukat".

Bide berriak urratu bai, baina tornua alboratu barik. "Tornua beti dago hor, eta tarteka labekada batzuk egiten ditut, euskal erara, baina ukitu garaikide edo moderno bat emanez, koloreen bidez, esaterako". Horren adibide dira '11 kolore' izeneko pitxer sorta (ikus eskumako orrian).

Gustura dago Iñaki bere lanek duten harrerarekin, garajea nahi baino beteago daukala aitortu arren. Udaberri honetan Oñatiko zenbait dendatiko eskaparateetan bere lanak ipintzeko asmoa zeukan, baina Koronabirusak dena gelditu du. Oñatiko turismo bulegoan eskura daitetzke bere lanetako batzuk eta, bestela, enkarguak ere hartzen ditu sare sozialen bidez. Herri Eguneko artisaunen azokan ere egongo da aurtan. ■



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak



Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia



Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserniko agia,
egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

■ *Euskal buztingintza tradizionala*



Euskal buztingintza tradizionalari eusten dio, baina ukitu garaikidea emanez, kolore biziak sartuz adibidez.

■ *Eskuz egindako apostoluak*



Tornua alde batera utzita, ideia, kontzeptu eta lanketa-molde berriak jorratzea gustatzen zaio.

■ *Aurpegiak*




Esgrafiatuaren teknika erabiliz, kultura arloko pertsonaia askoren aurpegiak irudikatzen ditu buztinarekin.

■ *Serigrafiak eta bestelakoak*



Azkenaldian azulejuekin ari da lanean; serigrafiatuaren teknika baliatuz, kolore eta irudi ezberdinekin apaintzen ditu.



Ilustrazioa: Jabier Erostarbe



(*) Itten: arrastua, pistia

KALE ZAHARRA BARRENEKO ETXE-IZENAK

Oraingo honetan Kale Zaharra barreneko planuaren bittartez eta orduko izenak ebaliaz, duela hirurogei edo hirurogeita hamar urteko, hau da, XX. gizaldiko erdi inguruko herriko etxe-izenen barri emun gura dotsuegu; izan be, gero esplikaiko dogun moduan, kale horretan pasaitten zana herriko beste kale guztietan pasaitten zan.

Kale Zaharrera etorritta, hauxe ikusten dogu: orduko etxe batzuk oraindiok zutik dirae, beste batzuk barriztau egin dira lehengo egitturia gordeta, edota aldatuta, lehengo birekin barri bat egindda, esaterako. Beste bakanen baten ortua eguen lekuan, etxia egin edo bota egin da, besterik barik; baiña, tira, aldaketak aldaketa, Kale Zaharra—oraindiok be— lehengua dala, ezaguketako moduan daguela esan geike.

Izenen gaiñian, baiña, zer esan? Ba, gizartiaren aldaketiaren ondorixoz, etxe bakoitza bere izenaz ezaguketako usadixua, neurri haundi batian behintzat, galdu egin dala, eta nahiz eta edadekuen goguan eta aguan izen horreik oraindiok be ebalten diran, jente gaztiak ezittuela ebalten eta, ber-bertakua ezpada, ezagutu be ezittuela ezaguketan; normalian, kaliaren numerua esanda jiraitten da jente gehixena: “Kale Zaharra, 55ian bizi naiz”, eta kitto! Ez famelixa-izenik, ez persona-izenik, ez goitizenaik ... Eta joera hori, bueltia etorri ezian, erabatekua bihurtuko da zoritarrez, bizimodu barrixaren, globalizaziñuaren eta abarren eraginez.

Denpora batian, berriz, kanpoko atia jotia nahikua izaten zanian etxe sukalderañño sartzeko, etxe guztiak euren izena eukain, eta izen hori kaleko numerua baiño askoz inportantiagua zan; numerua bakarrik izaten zalako kontribuziñua pagaitteko, edota, *L' Abeille* konpaiñia ezagunarekin-edo, sutien kontrako segurua egitteko, hau da, gauza ofizialetarako, baiña beste danetarako etxien izenaz jiraitten zan jentia, ondorengo ejenpluetan ikusiko dogun moduan: Nungua da gizon hori? Erlenekua! Eta andra ha? Eperretxena! Eta mutiko horreik nundik urten daue? Kastillonetik! Nora fango naiz bizikletia konponketara? Luxionera! Eta alkondaria zurzittera? Sarrixeneko bordadorienara. Halaxe zan kontua!

Eta planuan ikusi leiken moduan, danetariko izenak ebalten ziran etxiak izentaitteko: baziran persona izenak (*Andina, Luxio, Tere, Bartolo, Romulo* ...); apelliduak (*Mendia, Artza, Elortza*...); baserri-izenak (*Eperretxe, Azkonitza, Castillo, Xelaa*...); ogibidiak (*petokin, errementari, plantxadora*...); jatorrixaren barri emuten euenak (*Bergara, Ale(g)itar*...); goitizenaik (*Xezpal, Okan, Uxaluma, Txikiña, Kuxkur, Mantxiku*,...); kokalekua adierazten euenak (*Kurtzetxo, Kurtzekua*...).

Eta ezaugarri bat ekuain izen horreik danak: nahastu eziñak izatia, hau da, izena behin esanda nahikua zan danok jakitteko zeñien gaiñian berba egitten zan. Izenak ez eben sekula gaizki ulerturik emuten, adiera bakarrekua zalako: “Maria plantxadora” bakarra zan, “Pilatxo Mantxikuena” zan moduan, edo “Joxe Castillo” edo “Joxe M^a Paiko” bezalaxe. Eta holako izen bat aittatu ezkerro, herri danian ezagutuko euen, bakarra zan da! Horixe da, izan be, persona-izenaren ezaugarri nagusixenetakua, behin mentautu nahikua dala danak entenditteko.

Eta Kale Zaharran pasaitten zana, alde zaharreko beste kale danetan pasaitten zan bardin-bardin: **Kanpantxon** (*Txoriña, Benturena edo Prexenena, Lukasena*...), **San Juan kalia** (*Otsuana, Azpeitixena, Kirriñena*...), **Agirreko Lopenian** (*Kirruna, Perosterenana*...), **San Antue kalia** (*Larrastegikua, Txaiñena, Kukarruena*...), **Mendiko kalia** (*Jauregialtzona, Beliana, Txapelena*...), **Artzain kalia** —gaurko Moia kalia— (*Maletana, Ontzigiñana*...), **Santa Mariñan** (*Aranena, Baruena, Antixena*...), **Patrua kalia** (*Pedrokotzena, Migelkapagiñena, Arseniona*...), **Kale Barrixan** (*Santosena, Ritana, Juanitosiana*...), **Atzeko kalia** (*Zubiana, Obixa(g)ana, Xamaniosiana*...), **Auzotxon** (*Brunona, Xokerona, Poparretxena*...) **Lekunbarrin** (*Bidabaingua, Altziñena, Burdintxuena*...), eta **Arantzazu kalia** (*Arruena, Txoriña, Diortxuena*,...).

Handik kanpora, geruago eginddako kale barrixak eta auzuak dagoz (Errekalde, Olakua, San Lorentzo). Eta horreittan danetan ezta ohittura hori gorde, edo ezta hain normala izan. Azkenik, baserri-auzuetan baserrixen izenak gorde dira, eta, oraindiok be, gorde ezeze, ebal be egitten dira.

Roberto Altuna

 **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbide: Motxon E, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

 **Almaraz**
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz
"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei iezaguzu".



Ezkerretik eskumara, Hijinio Iriarte, Agustin Zarketa 'Danborrerotxo', Andres Agirre eta Faustino Inza 'Txaña'. Partiturari eusten, Eusebio Lizarralde 'Kapo'. Txistularien atzean Maritxu Arrue, Miguel Mari Agirre eta Julia Arregi ezagutu ditugu, eta atzeko mutikoen artean, Juan Kruz Arregi eta Bixente Elgero. 1960 inguruko argazkia.

Hijinio Iriarte txistulariaren omenezko postala eta seilua atera ditu CECA-Oñati taldeak

Hijinio Iriarte Mujika (Oñati 1920-Oviedo 1981) txistularia gogoratzeko postal eta seilu bana atera ditu Oñatiko CECA Numismatika eta Filatelia taldeak, haren jaiotzaren mendeurrena bete berri den honetan.

1980ko apirilaren 30ean jaio zen Hijinio, eta txikitatik nabarmendu zitzaion musikarako zaletasuna, batez ere txisturako. Familiatik zetorkion grina hori.

Gerra zibileko urteetan *Elai Alai* eta Olaetako Ballet dantzari taldeetan parte hartu zuen, eta Paris, Toulouse Calais eta beste hiri handietako antzokietan aritzeko aukera izan zuen hiru urtez.

Oñatira itzuli zenean Arrasateko udaleko txistulari plaza eskuratu zuen, eta gerora Oñatiko plazaren jabe egin zen. Herriko eskoletan eta bailarakoetan solfeoa irakasten ere jardun zuen.

Bere bizitzako azken urteetan Oviedon bizi izan zen eta bertan zendu zen 1981eko otsai-



Hijinio Iriarteren jaio zela ehun urte bete dira apirilaren 30ean

laren 5ean, baina beti izan zuen gogoan eta bihotzean Oñati. Urte hartako Errosarixo domekan haren omenezko txistu kontzertua egin zen Oñatin, bere anaia Demetriok zuzenduta.

EDIZIO MUGATUA

Hijinio Iriarteren omenezko postala eta seilua (80 aleko edizio mugatua da) turismo bulegoan eskuratu ahal izango dira, egoera normaltzen denean.

CECA Oñati taldeak ohitura du herrian urteurren edo ospakizun bereziren bat betetzen denean horiek gogoratzeko postalak eta seiluak ateratzeko. Aurretik Aita Madina, Bidaurretako Monasterioa, Borjako San Frantzisko, Demetrio Iriarte, Jose Mari Arizmendiarieta, Francisco Esnal, Oteiza, Alvarez de Eulate edo Sáenz de Oizari eskainitakoak atera ditu. Datorren urtean

Agustin Zarketaren omenezkoa aterako dutela aurreratu digu Luis Maiztegiak. ■



'Mila Modu' hirukote oñatiarra, Gazteko maketa lehiaketako finalisten artean

Euskadi Gaztea irriariaren XXIX. Maketa Lehiaketako 19 finalistetako bat da *Mila Modu* talde oñatiarra. Apirilaren 29an amaitu zen final nagusian egongo diren taldeetako bat bozka bidez aukeratzeko epea, eta hirukote oñatiarra zortzigarren tokian gelditu zen. Hernaniko *Kilimak* taldeak jaso zuen entzuleen botorik gehien (2.857), eta berak eskuratu du Bilboko Antzokian egingo den final nagusirako dauden lau txar-teletako bat, eta *Entzulearen GazteBizHitza* saria (2.500€). Hurrengo egunetan erabakiko du epaimahaik zein beste hiru talde ariko diren final handian (data zehazteke dago).

MILA MODU

Mila Modu taldea, Xabier Yañizek 2019an abian jarritako musika-proiektu berria da. Emozioen bidez, gogoeta eragiteko asmoz sortutako proiektua da. Iazko apirilean 'Boza Free' izeneko lehen kanta eta bideoklipa grabatu zuten eta orain, esan bezala, Gazteko maketa lehiaketako finalisten artean dago.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak


- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

Gezalaga Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

ANTXIÑAKO PINTTURIA



1855eko izurritia Oñatin

Aurreko hillian esaten geben moduan, XVI. gizaldixaren akaberako izurrite ikaragarriak ekarri zittuan heriotza gehixen askogatik Oñatiko herrira. Baiña harrezkero be sarritxo euki gittuan zoritxarrez, mailla apalaguan bazan be, halako gaitz bildurgarrixen ondorixuak. Horreittako bat heldu xakun Asia aldetik **1855ian: kolera morbo** lez ezautu zana, eta Euskal Herrixari nahiz penintsula osuari sakon eragin otsana.

Hara, zela zabaldu zan gure herrixan: **Frantzisko Goikoetxea** Naparruako **Olazagutiatic etorri zan Arantzazura** bere familiarekin 1855eko garagarrillaren 19ko illunkaran. Ostatuan sartu eta gaberdixan sentidu eben koleriaren erasana; bixamonian hil zan. Hurrengo egunetan beste heriotza batzuk gertatu ziran Arantzazuko beste ostatu batian eta konbentuan. Herrixan, jakiña, berihela jakin euen zelako arriskuan egozen.

Gaitza hain hurrian eukailla konturatuta, Oñatiko kontzejuak **erabagi batzuk** hartu zittuan: **errogatibak eta bederaziurrenak egittia San Rokeri eta Arantzazuko Ama Birjiñiari**; eta **Gesaltza inguruan guardiak jartia, Arantzazurako fan-etorrixak kontrolaitteko eta debeikatteko**. Baiña alperrik izan zan, nunbait; agostuaren 13an hil zan kale-aldian koleriak kutsatutako lehenengo oñatiarra.

Egoeria zihero okertu zan egun gutxiren buruan. Oñatiko medikuak eta osasun-langilliak gaiñezka ebitzelako, beste medikuren bat nunbaiten billaketia pentsau eben udalak. **Majo pagauta karriau euen sendagille bat hona**. Erremedixuen artian azufrez eta beste produktu batzuekaz igurtzitako abarrekin erreturak egitten zittuain bazter guztietan. Hala eta guztiz be, etzan erreza izan izurritia dominaitia. **Ixa 300 kutsatu egon ziran eta 162 hilddako**. Jipue galanta sasue haretan 5.000 bat bizilagun eukiko zittuan herri batentzako.

Ba, orduko desastre harekin dako zerikusixa gaurko **antxiñakuak**. Izan be, hillabete hareittako unerik larrixenetan kontzejuari bururatu xakon erre-hondatutako Arantzazu zainketan egozen exkluustratutako fraide hareiri mesede bat eskaketia: **Ama Birjiñiaren irudixa Oñatiko San Migel parrokiara jaisteko baimena**, bere omenez bederitzaurren bat egitten zan bittartian; zelabaitteko millagruaren esperantzatan-edo. Dana dala, **udalaren eta fraidien arteko negoziaziñuak etziran bape leunak izan**. Azkenian, kostata, **urrixaren 8xan ekarri zan imajiña parrokiara** eta han egon zan hillaren 18ra arte. Orduko gorabehera eta burrukatxuen xehetasunak jakin gura dittuanak jo dagixela Iñaki Zumalderen **Historia de Oñate** monografiako 643-646. orrialdeetera.

Gaurko ilustraziñua ezta fotografixia, ezta marrazkixa be, **pintturia baiño**. Neurri oso-oso haundittako kuadro bat dozue; **Pablo Uranga Diaz de Arkaia** (1861-1934) margolari gasteitzar eta bohemoiak moldautakua. Urangak 1918 aldera hillabete batzuk pasau zittuan Arantzazuko komentuan tripa-truke. Ordaiñetan tamaiña nabarmeneko hainbat kuadro pinttau zittuan fraidientzat santutegiko historixiaren gaiñian, gaur egun hango klaustruan ikusgai dagozenak.

Margo-lan honek, hain zuzen be, 1855eko Ama Birjiñiaren Oñatirako jaitsieria agerketan dosku. Pablo Urangaren estilo inpresionista, libre eta alegria dako. **Neri zera gustaitten xat batez be**: kaltzada zaharreko harri artian behera, **prozosiñuari ikusten xakon solemnidade-falta kuriosua**. Parajiak Gesaltza inguruak gogoraketan dost.

Pintturia norena eta noizkua dan esan dogu gorago. Hau bai, antxiñakua da, ehun urte pasatxo. Eskerrak Arantzazuko fraidiari eskuratu doskuen argibide batzuegatik.

Zure etxea, zure babesleku.



Berak zaintzen zaitu, ez ahaztu
berari ere maitasuna itzultzea.
Emaiozu kalitatezko produktuak,
zaindu zure babeslekua.